



HONDAKINEN KUDEAKETA BIZKAIAN


Zenbat organiko konpostatu
daiteke erraustu nahi duen lurraldean?

- **Frantziako eskualdeak** Herrialdeen nortasuna are lausoago Hexagonoko mapa berrian
- **Mikel Insausti** «Bildumagilea musika izugarri maite duen gizakume bitalista dela errebindikatzeko du *Vinyl Land* filmak» ● **Grezia** Kriaren erretratua argazkitan
- **Herri euskaldunak** Erabileraren jaitsieragatik erne
- **Net Hurbil** *Charlie Hebdo* eta Zibilizazioen arteko talka

EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

Alberdi



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak



 **argia**

Eskaerak:

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
© 943 371 545 - denda@argia.eus

www.argia.eus/denda/makilak





Azaleko argazkia:
INIGO AZKONA
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egileta aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.eus: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak: Iraitx Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Sorraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Faxa: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580 Nafarroa: GaztelukoPlaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpidetza@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Euskal Herria: 145 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2015eko urtarrilaren 25a, 2.446. zenbakia

ASTEKO GAIA

HONDAKINEN KUDEAKETA BIZKAIA Zenbat organiko konpostatzera iritsi daiteke erraustu nahi duen lurraldean?
UNAI BREA / 4

PERTSONAIA

BEGOÑA ECHEVERRIA: «Aunitz gauza egiten dut, baina denak lotuak dira elkarrekin». MIEL A. ELUSTONDO / 10

GAIK

GREZIA Greziaren erretratu soziala zazpi argazkitan.
OLGA STEFATOU / 16

ISLAMOFobia Musulmanei buruzko usteak gezurtatzen.
MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 20

IRITZIAREN LEIHOA

GREZIA BERRIZ ERE MIKEL ZURBANO / 22

AZKEN ASMAKIZUNA AINGERU EPALTZA / 24

OSPEAREN IZENEAN ERIC DITCHARRY / 25

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 23

TXANDAN Ni ere... ITXARO BORDA / 24

BERTSO BERRIAK Euskal antzerkigintza. OIHANA BARTRA / 25

ZIRTAK Zeu ere izan zaitezke aliatu. DANELE SARRIUGARTE / 26

ERDIKO KAIERA

VINYLAND Biniloari eta bildumazaleari omenaldia.
IKER BARANDIARAN / 28

GAUEKO ENTZIKLOPEDIA OROKORRA Gauda haurrei kontatuta. ITZIAR UGARTE IRIZAR / 32

LITERATURA ARITZ GALARRAGA / 34

IKUS-ENTZUTEKOAK GAIZKA IZAGIRRE / 35

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO / 36

OSASUNA IDOIA AGIRRE / 38

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 39

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 40

TERMOMETROA

FRANTZIAKO ESKUALDEAK Aro politiko berriko mapa egokitze arazoak ditu Hexagonoak. MIKEL ASURMENDI / 41

HERRI EUSKALDUNAK Alarrik ez, baina adi. ONINTZA IRURETA AZKUNE-AINHOA OIARTZABAL / 44

KONPOSTA Metal astunak. J. A. GALARRAGA ZUBELDIA / 46

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Eta Gerra Handiak *Charlie Hebdo* ere harrapatu zuen. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

HONDAKINEN KUDEAKETA BIZKAIAN

Zenbat organiko konpostatzera iritsi daiteke erraustu nahi duen lurraldean?

Hondakin organikoaren bilketa selektiboa areagotzeko eskatu die Bizkaiko Foru Aldundiak udalei. 2013ko datuak oso urrun daude herrialdeko hondakinen kudeaketa planek ezarritako helburuetatik. Oposizioaren ustez (eta hondakin kontuetan, oposizioa esatea EH Bildu esatea da), Bizkaiko hondakinen kudeaketa Zabalgarbi errauskailuaren inguruan ardaztuta egotearen ondoriozkoak dira datuak. Bizkaitarren gehiengoak, gaur-gaurkoz, ez dauka bosgarren edukiontzirik bere herrian.

| UNAI BREA |

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK dezenteko lana egin beharko du hondakin organikoaren bilketari dagokionez 2016rako ezarritako helburua bete nahi badu, nahiz eta, ahots kritikoen ustez, batere helburu handinahia ez den. Iazko azaroan lurraldeko udalei bidalitako eskutitzean, Aldundiak gogorarazi zuen 2016an iraungiko den Hiri Hondakinen Kudeaketarako II. Plan Integralaren arabera urtero 24.000 tona hondakin organiko batu behar direla modu selektiboan. Bizkaitarrek sortutako hiri hondakin guztien %4, alegia.

Eskutitz berean irakur daiteke 2013an –urte hartan ipini zituzten organikorako edukiontziak lehen aldiz– 4.900 tona baino ez zirela jaso. “Asko dago egiteko”, horra Bilboko Kale Nagusitik udaletara helarazita mezua.

Arazoari aurre egiteko proposatutako neurriak pare bat pasarte harago daude: Aldundiak diru-laguntzak emango ditu 2015ean, bai autokonpostagailuak erosteko bai –oraindik ez daukatenez– bosgarren edukiontzia jartzeko. Izan ere, gutxi gorabehera Bizkaiko herrien erdian besterik ez dago organikoa bereizita jasotzeko edukiontzia, eta horietan biltzen den batez besteko hondakin kopurua

oso txikia da, Zero Zabor ingurumen babeserako elkarteak zabalduetako datuei kasu egitera: pertsonako 0,35 kilogramo hilean, gutako bakoitzak eratu ohi dituen 7-8 kiloe-tatik oso urrun.

Beharrezko ñabardura bat: hondakin organiko guzti-guztia edukiontzi “arruntera”, “betikora” –errefusa ez da oso kontzeptu zabaldua Bizkaian– botatzen duten udalen artean batzuk handi samarrak dira, baina denetan Bilbo nabarmentzen da, zalantzarik gabe. Bertako Deustu auzoan ipini zituzten Bizkaiko lehenbiziko edukiontzi marroiak, proiektu pilotu gisa, 2012an, eta hantxe daude oraindik, proiektu pilotu gisa eta hiriko gainerako auzoetara zabaldu gabe. Horrek, noski, zeharo baldintzatzen ditu herrialde osoko bilketa portzentajeak. Ez da ahaztu behar bizkaitarren %30 inguru hiriburuan bizi dela.

EH Bildu: “Helburua oso apala da”

“Legealdiko azken hilabeteak dira eta EAJ konturatu da horrela jarraituz gero ez direla





iritsiko %4ko helburura. Gu hasieran konturatu ginen”, dio Asier Vegak, EH Bilduko Bizkaiko batzarkideak. Legegintzaldi hasieran Hiri Hondakinen Kudeaketarako II. Plan Integralaren berrikusketa egitea egokitu zen, eta eztabaida gogorra suertatu zen Vegaren esanetan. “Guk adierazi genuen ez geniola zentzurik ikusten berrikusketari, planari berrari ikusten ez genion heinean, Zabalgarbin oinarritzen delako. Etxea teitlatutik egiten hasi ziren, eta orain piztiari jatekoa eman behar zaio. Zabalgarbik hondakinen kudeaketa osoa baldintzatzen du Bizkaian”.

Arazo handiena hondakin organikoen bilketa da, alde handiz hiri hondakinen frakzio mardulena horixe baita. Asier Vegaren esanetan, osoaren %42 inguru; Aldundiaren Kudeaketa Planak 2016rako aurreikusten duen portzentajea txikiagoa da, baina handia edozelan: %37.

Deustuko herritar bat hondakinak bosgarren edukiontzian uzten. Deustu da organikoa bereizteko aukera ematen duen Bilboko auzo bakarra gaur egun. 2013ko datuen arabera (2014koak ez dituzte zabaldu oraindik) Bizkaian oso materia organiko gutxi iristen da konpostegira.

Hartara, EH Bilduko batzarkidearen iritziz urtero 24.000 tona hondakin organiko jasotzeko helburua oso apala da –Bizkaian, 2016an, gutxienez 200.000 tona eratuko direla kalkulatu du Aldundiak–. “Bilbon organikoa ondo jasotzea eta konpostatzera eramatea nahikoa litzateke helburu hori aise gainditzeko”. Koalizio abertzaleak uste du Aldundiak konpostatzeko borondaterik ez duela, eta ondorioz bilketarako bitarteko gutxi jartzen direla.

Urrian emandako prentsaurreko batean, EH Bilduk salatu egin zuen hilabete geroago Aldundiak eskutitz bidez udalei aitortu zien gauza bera: helburutik urrun dagoela Bizkaia. Eta bilketa portzentajea handitzeko hainbat proposamen egin zituen.

Batetik, prestatutako janaria, ordura arte ez bezala, bosgarren edukiontzira bota ahal izatea baimentzea; Aldundiak egun berean



jakinarazi zuen halaxe egingo duela (ikus hurrengo orrialdeko koadroa). EH Bilduren eskariari men eginez edo bere kasa, ez dakigu.

Bigarren eskaria izan zen bosgarren edukiontzia herri handi gehiagotara zabaltzea, eta haren erabilera sustatzea. Hirugarrenik, Bizkaian organikoaren bilketa handitzeko esperientzia pilotuak laguntzea eta bultzatzea, eta martxan daudenak eredutzat hartzeko galdegin zuen Asier Vegak. Larrabetzu, Mallabia eta Berrizko adibideak aipatu zituen Vegak. Izan ere, lehen bietako alkateak eta hirugarreneko zinegotzi bat izan zituen lagun agerraldian.

Zabalgarbi errauskailua, Bilboko Artigas mendian.

Ondoren, baserritarrak datoz organikoa biltzera, euren baserrietara eraman eta han konposta egiten dute, proiektuaren sustatzaile den Gurrupide elkarteak auzolanean eraikitako konpostegian.

Oraintsu arte nekazari bakarra aritu da zeregin horretan, baina urtearekin batera bigarren bat gehitu zitzaion. Udalak bere gain hartzen du biei soldata bat ordaintzea, hondakin bilketa egitearen truke.

Bilketa sistema hori herriko erdigunean baino ez dute egiten. “400 etxebizitza inguru daude, eta momentuz 105ek parte hartzen

Larrabetzuko eredua

Esperientzia pilotu horien artean, 2013ko udazkenean Larrabetzun abiatutakoa da interesgarrienetakoa. Asun Gaztelu alkateak eta Isabel Etxebarria zinegotziak azaldu digutenez, ekimena ez zen sortu hondakinen erabilera hobetzeko asmoz, nekazaritza sustatzekoaz baizik, baina azkenean helburu bikoitza betetzeko balio duela ohartu dira.

Funtsean, herrian sortzen den organikoa herrian bertan konpostatu eta erabiltzeko sistema antolatu dute. Izena ematen duten herritarrei kuboak ematen zaie, eta haiek ate aurrean uzten dute egun eta ordu jakinetan, astean hiru bider.

Prestatutako janaria bosgarren edukiontzira botata, noraino hobetuko dira bilketa kopuruak?

AZAROAN bidalitako gutunean, Bizkaiko Foru Aldundiak udalei jakinarazi zien aurrerantzean prestatutako janaria ere jaso ahal izango zela bosgarren edukiontzian. Hasiera batean, jatorri begetaleko hondakin gordinak, kozinatu gabeak, besterik ez ziren onartzen edukiontzi marroian; izan ere hala da oraingoz, eta hala izango da udal eta mankomunitateek Aldundiaren gomendioa praktikara eramateko planak garatu bitartean.

Prestatutako janaria ontzira botatzea eragozteko, modu horre-

tan konpostaren kalitatea asko gutxitzen dela argudiatu zuen Bizkaiko Ingurumen sailak. Iaz Basaurin egindako esperientzia pilotuaren arabera, ordea, kozinatutako hondakin organiko kantitate oso-oso txikia biltzen da, eta konposta egiteko prozesuan ia ez da igartzen. Horregatik erabaki dute onartzea.

Hain zuzen, prestatutako janaria gainerako hondakin organikoarekin batera jaso ahal izatea izan zen EH Bilduk Aldundiari egindako eskarietako bat, bilketa kopuruak hobetze aldera. Baina Basau-

riko esperientziaren emaitza ikusita –“kozinatutako hondakin organiko kantitatea oso-oso txikia da”–, espero daiteke neurriak eragin handirik izatea?

Ingurumen Sailak zabaldutako informazioa ez du zehazten zenbat den “oso-oso txikia”, baina Hiri Hondakinen Kudeaketarako II. Plan Integralak 2016rako egiten dituen aurreikuspenetan, kozinatutakoa organiko guztiaren %18,5 da. Eta besterik gabe basauritarrek erabaki badute prestatutako janaria kubo marroira ez beste edonora botatzea?



dute esperientzian, baina 175era helduko gara. Itxaron-zerrenda daukagu, konpostegien gaitasuna mugatua delako”, azaldu digute Gazteluk eta Etxebarriak. Diotenez, herrian oso jende gutxi erabiltzen du bosgarren edukiontzia, baina Txorierriko Mankomunitatean eurek dute organiko bilketa porzentaje handiena, alde handiz.

Txorierri 20.000 biztanle inguru ditu. “Gurea bezalako zerbait egin liteke bailara osorako, eta konposta berton gera dadila”,

Argazkian, arropa eta gailu elektroniko txikiak biltzeko edukiontzia. Koopera sareak kudetatzen duen edukiontzi sare honen bidez, “Europar oraindik eztabaidatzen ari diren arazo bati aterabidea eman zaio Bizkaian”, Ekologistak Martxaneko Txelio Alcántararen esanetan. Alegia: zer egin gailu elektriko txikiekin (mugikor, ordenagailu eramangarri, lisagailu, lanpara...). “Oraindik erabil daitezkeen objektu mordo berreskuratzen dira edukiontzi hauei esker”, dio Alcántarak. Gogoan hartu behar da Europar Batasunak hondakinen kudeaketarako ezarritako hierarkian bigarren hautua izan behar duela berrerabilpenak (prebentzioa da lehenbizikoa).

diosku Isabel Etxebarriak, “baina kontratua daukate Artigaseko konpostegiarekin eta hara bidaltzen dute”. Bizkaia osoko konpostegi bakarra da Artigasekoa (Bilbo), hain zuzen; izen bereko mendian dago, Ekoparkea izeneko “auzoan”. Bertan daude, konpostegiaren ondoan, orain gutxi arte Bilborena izan den eta berriki Aldundiaren eskuetara igaro den zabortegea, Zabalgari errauskailua eta TMB, hondakinen tratamendu mekaniko-biologikorako planta.

“Hondakinak baliabideak dira eta guk bota egiten ditugu”

Artigaseko konpostegia txikia da, txikiegia. Hala uste du behinik behin Txelio Alcántara Ekologistak Martxaneko kideak. Bat dator Larrabetzuko Asun Gaztelu eta Isabel Etxebarriarekin, baita Asier Vegarekin ere, Bizkaian konpostegi bakarra egoteak ez daukala zentzurik. Hondakin organikoen kudeaketa oso modu traketsean egiten ari deneko beste frogar bat da hori, beraren ustez.

“Bizkaian aurrerapauso handiak egiten ari dira gaikako bilketaren arlo batzuetan, baina organikoari dagokionez, agintariak koldarkeriaz jokatzeko ari dira. Bosgarren edukiontziaarekin esperimentu pilotuak egi-



EMON "SUA"

HIRUGARREN DISKOA SALGAI

— JAI ERRITMOA GOITIK BEHERA! —

KONTRATAZIOA IREKITA: 618 072 076

WWW.EMONMUSIKA.COM

baga-biga musika ideiak
tel. 618 072 076 / 026
www.baga-biga.com / info@baga-biga.com

Atez atekoaren eztabaidari tentuz heldu nahi dio EH Bilduk Bizkaian

SALBUESPENAK SALBUESPEN –berbarako, erreportaje honetan aipatu dugun Larrabetzuko organiko bilketa edo berriki Ondarroan martxan jarritakoa, biak ala biak borondatezkoak–, atez atekoaren arrastorik ez dago Bizkaian. EH Bilduk udal askotan agintea izan arren eztabaida hori hain gutxi zabaldu izanaz galdetu diogu Asier Vegari. Hona erantzuna:

“Gipuzkoa eta Bizkaia soziologikoki desberdinak dira, eta bestalde, eztabaida Gipuzkoara iritsi zenerako sistema martxan zegoen herri batzuetan, eta jendeak ezagutzen zuen. Bizkaian, aldiz, ez dago inon, eta eztabaida guztiz kakaztuta iritsi da hona. Gauzak beste era batera egin behar dira edo elkarri mokoka eta irtenbiderik gabe jarraituko dugu. Guk nahiago

dugu hausnartzea zein herritan den posible atez atekoa, zintzilarioekin edo beste sistema batekin. Gakoa da jendeari esatea derrigortasuna ez dela txarra. Agian hobe da pausoak gutxika ematea, helburua zein den ahaztu gabe, eta eraginkorragoak izatea. Hori bai, guk argi daukagu bosgarren edukiontziazen sistema ez dela hain eraginkorra”.

SOPELAKO UDALA



Sopelako bosgarren edukiontzian agertutakoak: beira, kartoia, plastikoa...

ten ari dira oraindik, organikoaren kudeaketa era egokian zelan egin aspaldi ezaguna izanda”.

Hondakin oro baliabidea da, Alcántara-
ren ustez, “eta guk bota egiten ditugu”. Hondakinak ondasuna direla garbi ez dugun bitartean, arazo bat edukiko dugu, haren hitzetan. “Guk uste dugu hondakin guztiak, edo ia, berreskuratu daitezkeela era egokian tratatuz gero, eta berreskuratu ostean balio bat eman. Izan ere, inoiz esan dugu hondakinen kudeaketak doakoa izan litekeela, zirkulua itxita gastu guztiak berdintzen direlako. Baina erakundeek ez dute hori ulertzen, eta baliorik sortzen ez duten azpiegituretan inbertitzen dute, errausketan esaterako”. Berriz erabil lite-

“Bizkaian aurrerapausoak egiten ari dira gaikako bilketaren arlo batzuetan, baina organikoari dagokionez agintariak koldarkeriaz jokatzeko ari dira”

Txelio Alcántara
Ekologistak Martxan

keen materia erretzea sekulako okertzat jotzen du Alcántarak.

Konposta da horren adibide. “Aldundiak esan ohi du konpostak ez duela merkatuarik, baina ez da hala”. Ekologistak Martxanek, hain zuzen, bosgarren edukiontzia sustatzeko kanpainak egin izan ditu Aldundiaren izenean eta hark ordainduta; “eurek emandako konposta banatzen genuen, eta agortu egiten zitzaigun”. Besteak beste, mendi kudeaketa okerraren erruz lurzoru emankorra galtzen ari diren mendiak berreskuratzeko konpost asko beharko dela iragarri digu Alcántarak.

Gutxi falta da 2016rako, eta ondo bidean laster jakingo da organiko bilketa hobetu ote den. Aldundiak adierazi digunez, martxoan jakinaraziko dituzte 2014ko hiri hondakinen kudeaketari buruzko zifrak. Espero dezagun Sopelakoak baino hobeak izatea. Uribe Kostako herri horretan arreta bereziz ari dira jarraitzen bosgarren edukiontziazen erabilera. Azaroan jakinarazi zutenez, bosgarren edu-

kiontzia ez die balio izan gaikako bilketa datu orokorrak hobetzeko: 2012ko %16,48tik, 2013ko %16,85era igo dira. Bizkaiko portzentajerik baxue-netakoa. Ez da hain harritzekoa ere, organikoa besterik egon behar ez zen poltsetan, orain gutxi, botilak, alfonbrak, ontziak, plastikoa eta abar agertu direla kontuan hartuta. Artigaseko konpostegiak ez zituen sopoloztarren hon-

dakinak onartu, bistan dena. Baina ez dira urrun joan: aldamenen dagoen Zabalgarbik irentsi ditu. ■



Europa erakusten digutena baino askoz ere anitzagoa eta ederragoa da

EUROPAKO HERRIEN MAPA

EUSKARAZ



Neurria: 84,1 x 59,4 cm

Etxe, eskola eta elkarteetarako opari aproposa

Mundua ulertzeko beste begirada bat,
ARGIaren eskutik.

BEGOÑA ECHEVERRIA

«Aunitz gauza egiten dut, baina denak lotuak dira elkarrekin»

Durangoko Liburu eta Disko Azokaren kariatara heldu zen Euskal Herrira, *The Hammer of Witches* eleberria eskuetan eta, oroz gain, Kalifornian sortutako euskara hiztunaren berri emateko prestik.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

Ez da lehenbiziko aldia etorri zarena.

Euskal Herrira, ez. Durangoko Azokara, bai. Etorri nintzen haurra nintzelarik, 6-7 urtetan. Gero, berriz etorri nintzen 13 urtetan. Eta, handik goiti, ene lanarendako etortzen naiz franko maiz. Ikerketa egiteko, erran nahi dut. Eta kantatzera ere etorria naiz, NOKA taldearekin.

Echeverria Mendiburu zaitugu. Pilartxo, ama. Durangora ekarri zenuen liburua hari eskainia dago.

Bai. Gurasoak, Baztangoak, Orabidekoak. Elizondotik Dantxarirat, bada bide bat, Orabidea erraten dena. Han bada auzo bat. Aitarene etxea, Ansona, lurrez Amaiurrekoa da. Amarena, Arnos, Lekarozkoa. Izeba bat ere badut parte hartan bizi dena, eta haren etxea lurrez Lekarozkoa dela uste dut. Mendian barna galdua den lekua da. Zaila da esplikatzen...

Zu kaliforniarra sortzez, niri euskal lurren berri ematen ari, nik ez baitakit!

Kar, kar, kar. Ez da aisa! Da Lekaroz, ez Oronoz. Da Amaiur, ez Elizondo. Da... Denak hor dira nonbait. Leku polita, dena den, Baztan.

Baztandarrak aunitz Kalifornian eta Nevadan. Zein da zuen familiaren historia?

Aita joan zen lehenik Ameriketarat, 1954an. Bazituen bi anaia jada hara joanak. Laugarren

anaia joan zen nire aita joan eta hurrengo urtean. Gure aitak iragan zituen han sei urte, etorri zen, ezkondu zen ene amarekin 1960an, eta han bizitzea pentsatu zuten. Bistan da, ezkondu ondotik egon ziren hemen istant bat, aitak paperen egiteko, eta joan ziren Chino ingurura, Kalifornian. Amak, gainera, lehengusina bat eramane zuen, eta ene aitaren anaia batekin ezkondu zen. Eta ene aitaren anaia zaharrena ere ene amaren ahizpa batekin ezkondu zen. Denak etxeko!

Horrela ikasi zenuen euskaraz...

Bai, ene lehen hizkuntza izan zen. Kasuak ez dira horrenbeste Kalifornian, baina aski normala da han Baztango jendeen artean. Bakersfielden berean ezagutzen dut beste

NORTASUN AGIRIA

Begoña Echeverria Mendiburu (Chino, Kalifornia, AEB, 1966) Kalifornia-Riverside Unibertsitateko irakasle da. Giza Biologia eta Soziologia ikasketak egina da, soziolinguistika irakasten du, hizkuntza eta identitatearen arteko loturak edo etnografiak gaiak aztergai. Hainbat lan argitaratu ditu, eta hizkuntza, erlijioa, identitatea, generoa, hezkuntza eta beste landu ditu horietan. NOKA musika taldeko kantari da Cathy Petrissans eta Andrea Bidartekin batera, fikzio idazle, euskaraz alfabetatua... Kaiolan etsiko ez zukeen txori kantaria, Begoña Echeverria.





Oxfordeko liburutegia

"Ezagutzen duzu Oxfordeko liburutegia? Ez? Ooo, ezagutu behar duzu! Badakizu Bonaparteren liburuak eta hor direna. Han bada Leizarragaren testamentuaren originala! Ene eskuetan atxiki dut! Bonaparteren lanak ere bai. Eta bertze testu txipi batzuk, euskaraz, XVIII-XIX. mendekoak, eta ni nintzen lehenbizikoa haiek leitzen: plegu-laurdenak josiak ziren oraindik, moztu gabe! Ganibeta eman zidatarik, ireki nituen pleguak".

familia bat, Lekaroz bertakoak uste dut: borts anaia dira, hara joandakoak; haien haurrek ere badakite euskaraz. Guretzat normala zen. Lehenbiziko euskara ikasi genuen. Gero, hazi ginelarik, eskolara joan, ingelesa ikasi eta hasi ginen ingelesez mintzatzen pixka bat. Amak bazuen beldurra: "Ahantziko dute euskara!". Orduan, egunero, kafesnea hartzen baikenuen, amak erraten zigun: "Ez baduzu mintzatzen euskara ez dizut emanen kafesnea". Lau haur ginen, eta denok oroitzen gara: "Egiten dut euskara!". Kafesnea nahi genuen... Kantu bat ere eginga dut horren gainean: *Kafesneari esker*. Hor esplikatzan dut gure historia hori. Kar, kar...

Chino eta Bakersfield aipatu dituzu arestian: euskaldunak gutxi ez Los Angeles inguruko herri horietan.

Bada euskalduna hor, eta lehenago gehiago zen. Badugu klub bat, Chino Basque Club, ehun eta hogeita familia dituen kide. Baina gero eta txipago da: orain ez da hemendik hara asko heldu, ez Chinora ez Bakersfieldera, baina badu euskal etxe txipi bat, franko bizia hala ere. Hilero egiten dugu bazkaria, eta batzuetan hemengo musikariak izaten ditugu, edo txalaparta, edo zernahi. Errateko maneran, franko besta handia egiten dugu Labor Day asteburuan, iraileko lehenbiziko igandean. Batzuetan egun osoko besta da, eta beste batzuetan egun bat baino gehiagokoa. San Frantziskoko eta Chinoko euskal etxeen artean pagaturik ekartzen dugu musika talde bat Euskal Herriak, eta egiten dugu besta franko pollita bi *picnic*-etan, bata bertzearen segidako bi asteburutan.

Giza Biologia ikasketak eginak dituzu Stanfordeko Unibertsitatean. Soziologia doktoregoa, berriz, San Diegokoa.

Biologia, Antropologia eta Soziologia dituzu, nahi baduzu. 1987an etorri nintzen lehenbiziko ikerketa egitera hona. Sei hilabete egin nituen Oxforden, eta hiru hilabete hemen. Orain hemen naiz beti, ikerketaren egiteko, NOKArekin kantatzen, familia ikusten...

Hizkuntzaren soziologia ikasketak ere badituzu, irakurri dudanez. Identitatea, erlijioa, kultura... dituzu aztergai.

Etnografia lana egiten hasi nintzen, euskara eta etnikotasunaren arteko loturak bilatzen. Izenordainak Testamentu Berrian eta Jean Duvoisinin Biblian nola erabiltzen diren aztertzen hasi nintzen. Errateko, protestanteen Biblian beti hika ari dira Jainkoarekin eta denekin. Duvoisinin lanean, berriz, kontrakoa. "Zerbait bada hor!" esan nion neure buruari. Nik erraten dut protestanteek nahi

zutela jendeek xuxenki irakur zezaten Biblia, eta horregatik egin dute hika, eta ez zuka. Leizarragak hala egin zuen, Duvoisinek ez. Leizarragaren bidea ezinezkoa da orain. Horretan ari naiz, eta, horrekin batera, mitologiako pertsonaiak ere ikertzen ari naiz, dela Mari, dela lamiak, sorginak... Horien mundua ingelesera ere itzultzen, gehiena ez baita ingelesera itzulia. Hor ere ikusten da aunitz erabiltzen dela noka, nahiz eta orain galtzen ari den. Interesgarria da noka sorginen artean ikustea, kantu eta testu zaharretan.

Dena den, deskribapena ez beste duzu zuk helburua.

Interpretazioa. Ari naiz, katolikoen eta protestanteen bibliak konparatu nituenean beza-la. Katolikoen artean, apaiza ageri da, eta kristaua ez da xuxenki mintzatzen Jainkoarekin, zuka darabil. Alderantziz da protestanteen artean. Baina hala ere, testu zaharrak ez dira beti berdin mintzo: batean ari dira noka, bertze batean zuka... Hori ikertu nahi dut.

Sorginak aipatu dituzularik, haien mundua ageri da zure nobelan.

Eta ez dakit segur nola heldu nintzen horretara ere! Kantuan ari gara NOKA taldean, eta zenbait kantutan, ikusten duzu izan zirela sorginak. Franko berriki sartu naiz gehiago mundu hori aztertzen. Baztango jendeen artean ere beti bada sorgin istorio! Nafarroako Artxibo Nagusian lanean ari nintzela, bertze zenbait gauzaren bila, berdin ikusten nuen testua sorginen gainean. "Hau interesgarria da". Errateko, Logroñon egin zuten sorgin epaiketaren agiriak agertu zitzaizkidan bistara, eta kopiatu egin nituen. Informazioa biltzen hasi nintzen, egiazko testuak. Bertzalde, bada Gustav Henningsen ikerlariaren liburua [*The Witches' Advocate: Basque Witchcraft and the Spanish Inquisition (1609-1614)*], eta horrela, hasi ondotik ezin gaia bazterrerat utzi! Banekien pixka bat, baina ez horrenbertze. Orain aunitz ikasi dut.

Fikzio liburua idatziz, erran nahi duzu.

Bai. Eta ez dakit nola hasi nintzen ere. Liburuan ageri diren dokumentuak egiazkoak dira, istorioa da nik asmatua, gertatu ez zirenak ere sarturik. Horrela egin dut. Nire lehenbiziko liburua da. Eginak ditut aunitz artikulua, baina ez libururik. Eta Durangoko Azokara ekarri nuen, eta saldu. Banuen Azokaren aditza, baina ez nintzen inoiz bertan izan. Ezta Durangon ere. Aurten, ene liburua hartu eta biak egin ditut! Kar, kar... "Ea nor ezagutzen ahal dudan!". Eta ezagutu dut jendea, eta argitaletxe zenbait, eta orain nahi

Ingelesa eta euskara

"Oroitzen naiz ene ahizpa Manuelak ez zekiela ingelesa. Joan zen eskolara eta ez zekien batere! Franko abila zen orde, bazekien bere izena izkiriatzen: 'Manuela Echeverria'. Eskolako irakasleek erran zioten amari, nahi bazuen pixka bat ingelesa aitzinatu etxean, behar zuela telebista erosi, guk *Sesame Street* eta halakoak ikusi eta ingelesa ikasteko. Horrela hasi ginen ikasten. Gero, lau haurrok elkarrekin ingelesa mintzatzen hasi ginenean ere, aita-amekin, osaba-izebekin eta hemengo jendeekin beti euskaraz ginen".

nuke lehenbizi euskarara itzuli, eta gero espainolera, hemengo jendeak ez baitu biziki ingelesa irakurtzen.

Ez dira aunitz zure bidea egin dutenak: Kalifornian euskaldun sortua, idazle, Durangoko Azokan, NOKA musika taldeko kantari...

Euskara ongi dakitenak, igual, hirutik bat dira nire adinean. Bertze batzuek zerbaite badakite. Ontarion, Chino inguruan Iparraldekoak eta Baztangoak dira euskaldun gehienak. Biek baldin badakite euskaraz, errazagoa da, baina ez da aisa. Normalean batek bakarrik daki, eta euskara etxean egin behar da, ez da etxetik kanpo ikasteko aukerarik. Nire adinekoen artean, badira gurasoak hemengoak dituztenak. Haurrak dituzten aunitz ez dira euskaraz mintzatzen, baina euskaldun sentitzen dira, mundu horretan sartuak dira. Aunitz interesatuak dira, bai. Ez dira *geek* erraten dena, intelektualak, liburu eta holakoetan franko interesatuak. Baina badute hona etortzeko interesa, familiaren ikusteko.

Chinon izan ginelarik duela hamar urte, hango Basque Club-en eta Centro Basco jatetxean, bertzeak bertze, adin batetik gorako euskalduna bertzerik ez zen han...

Gu gazteenak, kar, kar, kar. Hori da adina, bai, adin handia. Hala ere, badira batzuk gazteagoak, ezkonduak, beren umeak leku horietara eramaten dituztenak. Han bai, entzuten ahal duzu aunitz euskara. Bertzalde, kantatzen ere badakite, edo ez dakite baina gustatzen zaie, eta nahi dute kantatu, dantzatu... Eta egiten dute! Gu, errateko, orain dela hamazazpi urte, ni hemen nintzelarik doktore tesia egiten, ari ginen, ea nolako izena eman behar genion gure taldeari. Lehenbiziko diskoa bi urte geroago atera zen, eta bigarrena, 2005ean uste dut. Gaztetik Cathyk [Petrisans] eta biok bagenuen ofizioa elkarrekin kantatzeko. Andrea [Bidart] gu baino hamar urte gazteagoa da, baina 13rekin bazuen boz



ellaURI
HOTELA

KILO TERDI TXOKOA
Kilo t'erdiko txuleta
Legatz-solomoa plantxan
(6 pertsona gutxienez, aurretik deituta)

Altzusta 38, 48144 ZEANURI
+34 946 317 888 | ellauri.com

Natura sentitu



AZKEN HITZA

Euskara

“Oroitzen naiz haurra nintzelarik Elizondon haurrek ez zutela sobera euskara egiten. Eta orain bai! Baztanen, Orabidean euskara zen, baina Elizondon beti espainola. Orain aditzen duzu haurren artean, kalean. Gehiago aditzen da. Eta Durangoko Azokan, gehiena zen euskara!”.

ederral! Eta gurekin kantatzen hasi zen, beranxeago, gaztea zelakoz. Informalki kantatzen genuen. Bazen bertze talde bat, korua, Euskaldun Giroa deitzen zena, dena emakumez osatua. Han ere ari ginen, baina desegina da orain. Gu hirurak beti ari ginen zerbait, ordea, eta hasi ginen.

Noka

“Generoa da gure musika taldearen izena: NOKA. Toka eta noka, linguistikoki gauza bera dira, baina toka erabiltzen da, eta noka ez hainbertze. Horregatik paratu genuen NOKA izena, jendeari esplikatzeko zer den hori. Badakit leku batzuetan oraindik erabiltzen dutela. Uste dut Amaiurren oraindik horrela dela. Durangoko Azokan ere, toka noiznahi aditzen nuen. Noka, aldiz, guti. Gustatzen zait noka, ez dakit ikasten ahal dudana, baina gustatzen zait”.

Eta segitzen duzue horretan...

Bai, lehen informalki, eta orain formalkiago. Mikel Markezekin ari gara, disko bat egiten. Iragan urtean Chinorat etorri zen Mikel, eta *tour* bat egin genuen: Chino, Los Angeles UCLA, Riverside, Gardnerville-Nevada, Boise-Idaho... eta bertze leku batzuetan. Arrunt ongi joan zen, eta hasi ginen zerbait egin behar genuela elkarrekin, eta horretan gara. Aurten egingen dugu *tour* bat Euskal Herrian, Hegoaldean Mikel Markezekin, eta Iparraldean Laurent Azcarainekin, Otxalde taldekoarekin. Nahi genuke disko bana egin, Mikelekin bata, eta Lauretekin bertzea, eta *tour* bat egin Mikel Markezekin han ekainean, eta hemen abuztuan. Mundu txipia da, azkenean. Ez dugu hemengoak bezalako musikaririk gure taldean. Baina harremanak genituen hemengo jendeekin, bereziki Andrea Bidarten bidez, eta hasi ginen, kantuak idazten eta kantatzen. Hitzak, batzuk Etxahun hartuak dira, bertze batzuk guk idatziak. Donostian izan nintzen, orain urte asko, HABEn, alfabetatzen. Mintzatzen nintzen euskaraz, baina ez nekien idazten. Eta ikasi nuen.

Gauza aunitz egiten duzu...

Bai, gustatzen zait. Aunitz gauza egiten dut, baina denak lotuak dira elkarrekin. Aunitz urtez ari naiz lanean, eta orain ari dira agertzen: pasatu da liburuarekin, kantuekin... Aunitz lanean. ■



argia 2015eko egutegia

Egunero etxe, elkarte eta eskoletako hormak edukiz jazteko

Historia gaiak

Txistekak

Hitzokeiak

Esaldi esanguratsuak

Bertsoak

Etixerako gomendioak

Zientzia

Santuak

Euskal izendegia

Eguzkia, ilargia eta mareak

Argiako eskaintza bereziak



EGURREZKO
TAULA
hormakoa

50€

EGUTEGIA
opari

EGUTEGIA

9€

 **argia**

argia
egutegia
2015

BURNIZKO EUSKARRIA

5€

ESKAERAK

www.argia.eus/denda

denda@argia.eus

© 943 37 15 45

Greziaren erretratu soziala zazpi argazkitan

| OLGA STEFATOU |





Atenas, krisiaren adibide garbia. Inoiz baino hitsagoa, utziagoa eta ilunagoa da bai hiriko paisaia eta bai herritarren jitea. Greziako biztanleriaren erdia bizi da Atenasen (ezkerreko argazkian), baina eraikuntzan oinarritutako hiriburua krisian murgildu ostean, landa gunetara itzuli dira asko eta asko. Mobilizazio handien erdigune ere bada Atenas: goiko argazkian, Gobernuak austeritate neurrietako batzuk onartu ondorengo protestetako bat, hiriburuko Syntagma plaza nagusian. Kasu honetan, ikuskizun bortitzak kaltetu ugari utzi zituen, poliziak erabilitako indarkeriaren, gas negar-eragilearen eta produktu kimiko arriskutsuen ondorioz. Atenasko irudia da behekoa ere: etxea uzteko unea dute Aggeliki-k eta Alexander semeak, kaleratu egin dituztelako. Aggelikiren senarrak duela hiru urte egin zuen alde, eta ez dute nahikoa diru alokairua ordaintzeko.



GREZIA

Kontrasteak agerian.

Turismoa eta turistak diru iturri garrantzitsua dira herrialde helenikoan. Eskuineko irudian, Zefalonia uhartea. Hondartzen pribatizazioari bide emanez, Greziako 110 hondartza salgai jartzeko aukera eman zuen iazko lege batek. Postaletako irudiarekin kontrastean, prostituzioa eta horrek dakarren emakumezkoen salerosketa areagotu egin da Grezian. Gobernu Kanpoko Erakunde arabera, 13.000-14.000 lagun inguru dira salerosketa honen biktimak. Batik bat Errusia, Ukraina, Albania, Errumania, Bulgaria, Moldavia eta Nigeriatik ekartzen dituzte emakumeak. Beheko argazkikoa Ghanakoa da, prostituta eta salerosketaren biktimak.





Etorkina izatea zigor. Fares du izena goiko mutilak, Siriatik iritsi zen Greziara, gerratik ihesi. Ailegatu eta hilabetera, talde ultraeskuindar batek gogor jipoitu zuen. Immigrante ugari eraso eta hil dituzte Urrezko Egunsentia alderdi politikoko jarraitzaileek. Beheko irudian, Aggeliki moldaviarrak pilatutako garraio txartelek erakusten dute zenbat diru utzi duen burokrazia kontuetan, beretzat eta bere semearentzat paperak lortzeko. Semea Grezian jaioa izan arren, Moldaviako eta Pakistango gurasoak izateagatik arazoak ditu administrazioarekin, greziar askoren moduan.



ISLAMOFOBIA

Musulmanei buruzko usteak gezurtatzen

Islamofobia ugaritzen ari den garaiotan, Islamaren eta musulmanen inguruko uste ustelak hain azkar –eta interesatuki– zabaltzen ari diren uneotan, komeni da hainbat aurreiritzi ezbaian jartzea.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |




Herrialde musulman eta arabiar batzuetako gobernuen politika bidegabekoa aitzakia gisa erabili ohi da musulman norbanakoak eta haien kultura mespretxatzeko. Kurioski, emakume musulmanek oztopo asko dituzte lan munduan sartzeko... Europan.

**“Arabiarrak, musulmanak eta islamiar-
rak, denak dira gauza bera”.** Ez da hala, sarri denak zaku berean sartzen ditugun arren. Herrialde arabiar batean (22 daude munduan) jaio dena da arabiarra, arabiar hiztuna, eta ez du zertan musulmana edo islamiarra izan, ateoak ere izan daiteke. Musulmanak Mahomaren erlijioa jarraitzen dutenak dira, Islama dute abiapuntu, baina islamiar izan gabe ere izan daiteke musulmana, doktrina eta praktika politiko jakin batzuei erantzuten dien ideologiak gidatzen baititu islamiarrak.

**“Musulmanak fanatikoak eta arrisku-
tsuak dira”.** Ez dago Islam bakarra, doktrina bakarra, hori baino konplexuagoa da, eta Islamaren jarraitzaile diren musulmanen gehiengo handiak kondenatu egiten ditu Jihad islamiarra edo Estatu islamiarra berre-

sartzeko indarkeria defendatzen dutenen ekintzak. Areago, Al Qaeda –eta honen baitako ISIS– talde fundamentalistaren eta talibanen biktimak musulmanak dira batik bat. 2010eko datuen arabera, 1.600 milioi musulman inguru daude munduan, eta 46.000 baino ez dira Al Qaedakoak edo talibanak; hots, %0,002.

“Beste erlijioetako fanatikoek ez dute atentaturik egiten”. Bi adibide: 2006an, Leo Bassi umoregileari, talde ultrakatolikoaren mehatxu etengabeak jaso ostean, bonba bat jarri zioten kamerinoan, Madrilen, aretoan 200 ikusle zain zeudenean. Arrazoia: katolikok iraintzen zituen ikuskizuna egitea. 2011n berriaz, Europaren islamizazioari aurre egitea helburu zuen Anders Breivik norvegiarrak 77 lagun hil zituen, atentatu odoltsu batean.



Group	Size (approximate)
Muslims	1.57 billion
Al-Qaeda	<10,000
Taliban	20,000

Islamiarrek AEBetan egindako hainbat atentatu FBIk ordaindu eta bultzatu zituela argitu du Human Rights Watch erakundearen txosten batek

“Ez da xenofobia kontua”.

Arlo sozialean ere ezin esan kapitalismo basatian oinarritutako gure gizartea lezioak emateko dagoenik. Maiz, ordea, herrialde musulman eta arabiar batzuetako –ez guztietako– gobernuen politika bidegabea aitzakia gisa erabiltzen da musulman norbanakoak eta haien kultura mespretxatzeko. Kurioski, Amnesty Internationalek behin baino gehiagotan salatu duenez, emakume musulmanek oztopo asko dituzte lan munduan sartzeko... European, eta buruan zapia eramatea da traba handietako bat. “Askotan galdetzen didate *hijab* edo beloa daraman emakumea feminista izan al daitekeen. Nik zera erantzuten diet: biluzik doan emakumea feminista da ezinbes-

tean? Nire ustez, gorputza estaltzea edo biluztea txanpon bereko bi aldeak dira. Emakume bat biluzik egoteak ez du esan nahi askea denik. Kontua da, zergatik ezkutatu edo erakutsi behar dugu gure gorputza ezer aldarrikatzeko? Bi kasuetan haragi zati hutsa balitz bezala jokatzten dugu”, adierazi zion ARGIAri Nawal Al Saadawik, Emakume arabiarren askapen mugimenduko kideak. Hamarkada luzez aztertu ditu Judaismoa, Islama eta Kristautasuna, munduko hiru erlijio monoteista nagusiak, eta ondorio garbista ateratu da: “Zoritarrez, emakumeak zapalduta mantentzeko interesa dute hirurek”.

Elkarbizitzarako oinarriak jarri beharrean. Esanguratsua da europarron pertzepzioa (ikusi goiko grafikoa): musulmanez inguratu-ta gaudela uste dugu, egia ez den arren. Euro-par Batasunean, Espainiako Estatuak da musulman proportzio gutxien duen Estatuak (herritarren %2) eta musulman gehien dituela uste duena (herritarren %16 musulmana dela uste dute galdekatuak).

Datu kezkaigarri bat: *Charlie Hebdo*ren aurkako atentatuaren osteko astebe-
tean, musulmanen aurka gutxienez
54 ekintza (21 eraso eta 33 meha-
txu) salatu zituen Frantziako Esta-
tuko Musulmanen Kontseiluak. ■





DANI BLANCO

**Mikel
Zurbano**



EHUKO
IRAKASLEA,
EKONOMIALARIA

Grezia berriz ere

IGANDE HONETAKO Greziako hauteskundeek Europar Batasuneko (EB) bazterrak astinduko dituzte baldin eta inkestek iragarritako Syriza alderdiaren garaipenarekin honek gobernu osoatzea lortzen badu. Izan ere, Syrizaren egitasmo ekonomikoak bi ardatz nagusi ditu: austeritatearen kontra egitea gastu publikoa sustatuz eta zor subiranoa berregituratzea. Greziako arazoen diagnostiko egokian oinarritutako bi helburu hauek euroguneko elite politiko-ekonomikoaren egungo estrategia ortodoxoaren aurka doaz zuzen zuzenean. Syrizaren programak austeritate politika zalantzan jartzen du eta gainera zorraren nolabaiteko mutualizazioa eskatzen duenez Europako iparraldeko hartzekodunen –banketxeen– interesen aurkakoa da. Angela Merkelen mehatxuak, beldurraren botoa piztuta, austeritate programen aurkako edozein ekimen ekidin nahi du.

Greziako zor subiranoaren hausturak krisiaren bizkortzea ekar lezake finantza panikoak eta oportunismo espekulatiboak eraginda eta duela hiru urte Europako periferian izandako kutsatze prozesua errepikatuta

Hauteskundeak tarteko, 2010 urtean lehertutako Greziako zorraren krisiaren arazoa itzuli da agertoki ekonomikora eta eurogunearen egonkortasuna kolokan jartzen du atzera ere. Krisi honen oinarrian, lehenik aurreko hamarkadan Greziako sektore pribatu zein publikoak metatu zuten zorraren tamaina aurkitzen da. Bigarren arrazoa Europako iparraldeko bankuek mugarik gabeko maileguak ematea izan da. 2010eko zorraren krisiaren aurrean EBk hautatu zuen Grezia zigortzea eta iparraldeko bankuak laguntzea. Oso zorrotza den austeritate programa ezarri zioten Greziari orduan eta bere eraginak oso ikusgarriak dira herrialde honetan gaur egun. Geroztik Greziako BPG

%25 murriztu da eta langabeziaren ikaragarrizko igoera eta biztanleriaren zati oso zabalaren txirotzea ekarri ditu austeritateak. Beste muturrean, Iparraldeko bankuak zigorgabetuak izan dira orokorrean, egonkortasun fiskala beren mesederako bideratu baita. Programa honen diskurtso ofizialak dio austeritatea saihetsezina dela eta azkenean bere fruituak emango dituela Grezian bezala periferiako gainerako herrialdeetan.

Nolanahi ere, diskurtso ofizialaren akatsa izan da austeritate indartsuak ekarri duen miseria eragindako errebolta politikoaren aukera ahaztu izana. Horregatik, igandeko emaitzek ekar litzaketan epe laburreko liskarren erantzule bakarra troika eta Europako elitea dira. Greziako zor subiranoaren hausturak krisiaren bizkortzea ekar lezake finantza panikoak eta oportunismo espekulatiboak eraginda eta duela hiru urte Europako periferian izandako kutsatze prozesua errepikatuta. Grezia eurotik kanporatzekotan gerta liteke eurogunea bera ere zalantzan ipintzea, berriz ere asaldura jasangaitza bihurtzen bada herrialde periferikoetan eta EBk ez badu urrats sakonik ematen zorraren mutualizazio efektiboaren bidetik. 2012tik Europako Banku Zentralak hartutako neurri apalek ez dute beharrezko bermea ekarri eta ikuskizun dago laster hartuko dituen neurri hedatzaileak –zor subiranoen erosketa, besteak beste– ausartak izango diren.

Austeritate politiken helburu nagusia Greziako zor subiranoa mugatzea izan den arren kontrakoa suertatu da, izan ere zorraren maila BPGaren %170era igo da. Ekonomialari ezagun ugari onartzen dute zorraren zama hain dela astuna ezen etorkizuneko Greziako edozein gobernu ezin izango diola aurre egin bere zerbitzuari. 1980ko hamarkadan Hego Ameriketako kanpo zorraren berregituraketek erakusten dute bidea. Hori egin ezean eurogunea hausturara kondenatuko dute EBko agintari ekonomikoek. ■





Aingeru Epaltza

IDAZLEA ♦



JOSU SANTESTEBAN

Azken asmakizuna

ZER JATORRAK ziren Podemos-ekoak! Oroitzen? Haien buruzagiak Iruñeko Herriko Tabernan minztaldia emana zuen. Eta sinesten zuten Guardia Zibila Euskal Herriko droga trafikoa nahasirik ibilia zela 80ko hamarkadan. Eta presoan sakabanaketaren aurka zeuden. Eta elkarriketaren alde. Eta, berebereziki, kaka-kaka eginak zeuzkaten Espainiako alderdi nagusiak, PP sugea nahiz PSOE zizarea, inkestetan goraka eta goraka, Trantsizioaren erregimen zirtzila kolokan jartzeraino. Hainbertze urtez solaskiderik aurkitu ezinean ibili ondoan, azkenean, lagun bat-edo, non eta etsaiaren habian.

Nafarroarako ere, Pablo Iglesiasen neska-mutilen agerpena ez zen begi txarrez ikusi. 30 urte UPNren eta PSNren uztarpean egon ondoan, aldaketa urte zen hurrengoa. Nabarrismo antieuskalduna agintetik eraistekoa. Aro berriari hasiera ematekoa. Hori guztia, noren eskutik? Gehien sufritutakoenetik. Antolatuenetik. Abertzaleenetik. Nagusiki, bederen. Tira, bidelagun gehiagoren eskua beharko zen, kontuak ongi atera zitezen. Gatz espainol pixka bat, entsalada gehienbat euskaldunean. Madrili begirako lau txoro horiek ongi etorriak izanen ziren, PSN ahultzeko izanen bazen.

Navarrometroa etorri zen, ordea. UPNkoen artean

UPNkoen artean ez ezik bertze batzuegan ere eragin zuen bihotzekoa. Podemos Nafarroako lehen indarra! Posible ote?

ez ezik bertze batzuegan ere eragin zuen bihotzekoa. Podemos Nafarroako lehen indarra! Posible ote? Bigarren jotzen zirenak, hirugarren. Eta liderraren itzalaz baliaturik, beren burua egiteko erabakigarritan ikusten zutenak, bazterrera. Nolatan halakorik? Politikariak, agerian, ez zioten sinesgarritasun handirik eskaini delako inkestari. Sarean, bizkitartean, airez aire zebiltzan auhenak eta deitoeak, abertzaletasuna herrialde honetan baraturik ikustean.

Nafarroatik kanpoko hego euskal herrietan ez zen hainbertzeko kezkarik agertu. Azken batez, gauzak *Navarrometroak* iragarri bezala gertatuta ere, hain harritzekoa ote zen? Hain dira xelebreak nafar horiek!

Azken *Euskobarometroak* zapart egin du. Hari sinestera, Podemos zer eta bigarren indarra gerta liteke Euskadin,

hurrengo hauteskundeetan. Lehenbizikotik gertu-gertu eta orain arteko bigarrena gehien sufritutakoak. Antolatuenak. Abertzaleenak hirugarren postura bidalita. Araban gailen. Eta Gipuzkoan –non eta Gipuzkoan– orain arteko irabazleen parez pare.

Goizetik arrats, Podemosekoak ez dira hain jatorrak. Podemosekoak, orain, Madrilen azken asmakizuna dira, abertzaletasuna ahultzeko. ■



DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

Ni ere...

...CHARLIE HEBDO NAIZ, astekariaren aurkako erasotik landa. Aitor dut nire ironiarako joera formateatu zutela denboran Caburen edo Wolinskiren marrazkiek. Ondorioez axolatu gabe idazteko eta pentsatzeko jaidura itsu horretan tematzeko ausardia edo inkontzientzia zor diegu askok. Urtarrilaren 7an agituak inarrosi gintuen Baionako Herri Etxearen maldan biltzera bultzatuz.

Sarraskiaren ildotik amalgamak eta mendeku nahikundeak ekidin ezinak dira. Teletistikako irudi errepikakorrek burtzoroa hazten dute eta menturaz zenbaitengan hiltzaileen balentria morbidoen imitatze

gutizia pizten. Euskaldunok badakigu zelan eta nondik elikatzen den terrorismoa eta lanjer handiaren dena ekintzaileen jatorrizko jendarte dela, kuzkurtua, uzkurtua, salatzzen, deitoratzen, gertatutakoa zalantzan jartzea (auto)debekatzen, haurride arabiarrena aldion, musulmanak izan ala ez izan.

Batasun sakratuaren izenean, ur zitalaren antzera, izua isuri da herritarren larruko poroetan barna Errepublikaren gerra kantak ozenduz behingoz gu trinkoa bihurtzeraino. Etorkizuna zalantzan dator.

Houellebecq ez da mehatxatu bakar. ■





Eric Ditcharry

♦ ANTROPOLOGOA

Ospearen izenean

ANDY WARHOLEk zioenez, bakoitzak bere ospea eskuratuko du. Gehitu zuen laurdentxo batek bakarrik iraunen duela. Gaur egun ezagutzen dugun mundu mediatiko numerikoan edonor eror liteke Warholek profetizatu zuen tranpan. Facebook kontuak sortuz, milaka Tweetak igorri, WhatsApp baliatuz, armiarma numerikoaren sarean eroriz, kalachnikovak hartuz, jende arrunta bahituz, edonork pentsa dezake talentuduna dela eta norbait bilaka litekeela. Fededun berrientzat errealitatearen iratzartzea espantagarria izanen da. Errealitatea eta mundu birtuala bereizten ez direnentzat lurreratzea depresibogarria izanen delako.

Eguneroko eztabaidetan, etxeetan, bulegoetan, plazetan, ostatueta, Facebooken zenbat lagun dituzun eta zer-nolako sarea duzun kontuek mihi askoren gainean dantzaten dituzte. Batzuk, orain arte, mediatiko numeriko zirimolaren ertzean gelditu ziren. Arrazoi anitz zituzten: etikoak, moralak, ideologikoak... Gaur egun, mediatiko numerikoa den diktadura garai-kidea haien baitaraino heltzen ari zaie. Burua makurtuz eta euri tantak zintzilikatuz zituzten erabakitzeko eta kritikatzeko esku-bideak dakitenei, dohainik oparitzen dizkie. Jakintzak, hitzak, hausnartzeko eta auto-introspektzioak egiteko gaitasunak, denak batera, itxurakeriaren menpe desagertzen ari dira.

Guretzat asmatu dituzten tranpetan ez erortzeko gaur egungo ikurrik iraultzaileenetako hariak deskonektatzearen imintzioan koka litezke. Ordenagailuak, mugikorrak eta tabletak

itzaliz gero, XV. mendean japoniar olerkari batek idatzi zituen poesiengana joan gintezke. Ikkyū pentsamoldea ezagutuz gero, sare asozialek fagozitu diguten transgresioen gaitasuna berreskura genezake. Itxurakeria hutsa den diktadurak orain arte bizi izan ditugun diktaduren itxura duela.

Zilbor eta jainkoen izenean hilketak izan dira eta izanen dira. Ospearen izenean itotzeak, buru mozteak. (In)kontzientzien borrokak amaigabeak dira. Etsaien dohaina aurpegi moztortzearen keinuan ezkututzen da. Esplotazioa herentzietan enkarnatzen baita, atzoko ustia-tzaileak gaurko eta biharkoak izanen direla.

Zilbor eta jainkoen izenean hilketak izan dira eta izanen dira. Ospearen izenean itotzeak, buru mozteak. (In)kontzientzien borrokak amaigabeak dira. Etsaien dohaina aurpegi moztortzearen keinuan ezkututzen da

In the name of god, erradikala den ideologia ospearen izenean, bi kalachnikov eskuen artean hartuz, internazionala den media-esferako ospea irabaz dezaket baina laurden batek iraunen duen ospearen truke zer galduko dut? U s u arrapostua ez da arrapostuan kokatzen, galdean baizik. ■



BERTSO BERRIAK

Euskal antzerkigintza

Oihana Bartra



DANI BLANCO

Doinua: *Brindo por las mujeres.*

Sarri egonagatik kulturari atxikiak hunkitu arren dantzak, teatroak, trikitiak.. Ikuskizunak dira masentzako eraikiak ta funtsezkoak dira gure erritual txikiak.

Umezaroan jarri daiteke lehen harria herriko antzerki talde xume batean jarria behetik sortzea da lehenengo ezaugarria herrigintzan baitago guztiaren oinarria.

Zertarako antzerkia euskaraz egiten hasi? Zertarako egin negar, barre, algara, garrasi? zertarako inorengan hunkidura sorrarazi? Bada, nahi dugulako garena adierazi. ■

* MU-HUHEZIK antolatutako Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduandoan jarritako bertsoak. Sorta osorik argia.eus webgunean.

Danele Sarriugarte

♦ IDAZLEA



DANI BLANCO

Zeu ere izan zaitezke aliatu

URTE BERRIARI hasiera eman genionetik bizpahiru aste pasa diren honetan, eta argi geratu zaizun honetan, berriro ere, temati saiatu ezean, nekez beteko dituzula abenduaren 31n zeure buruari ezarritako helburu horiek guztiak; azken batean data arbitrarioa delako (nolabait neurtu behar baitugu denboraren igaroa), eta erlatiboa, eta hortaz egutegia mudatzearen ekintza ez zaizulako burdin goriaren bortiztasunarekin markatu bihotzean, hala nola trabatzen diren urdailean epifaniak, bidegabekeriak zenbait bidaia eta maitatu izan dituzunen agurra, zure usadioak edo sinesmenak edo birbideratu nahi zenukeen dena delakoa benetan eta derrepentean aldarazteraino (nahiz eta horrek ere diziplina eta buru gogorra eskatzen dituen, gero, egunero); okasio honetan, hain zuzen ere, baliatu nahi nuke zutabe hau geure buruei laguntzeko, besterik ez bada, urte hasierako helburu horietako bat behintzat mamitzen.

Aliatua izateko xede dohatsuaz ari naiz, jakina, aliatua izatea ulertuta modu honetantxe: talde baztertu bateko kideen eskubide-berdintasunaren alde borrokatzen dena, talde baztertu horretako parte ez izanda ere. Adibide batzuekin labur adieraztearren: ni bezalako cis-emakume bat transen alde, ni bezala hemen jaiotako bat paperik ez duen auzoaren alde, zu bezalako aita jator bat ni bezalako neska gazteen alde. Eta abar. Izan ere, Francesca Ramsey bideo-blogariari esker iritsi zaizkit aliatua izateko bost aholku ezinago erabilgarri, eta azpidatzigintzan alfer nabilenez azkenaldi hurbilean baina eskuzabal-tasunaren sukar betean natzanez oraindik ere, euskaratu egin ditut, laburtu; funtsean, hitzeko formatu honetara egokitu.

Etxe bat eraikitzearekin konparatzen du kontua Ramseyk: adiskideari lagun egin nahi diozu bere txokoa muntatzen, baina (kasu baterako) igeltseroen jardunaz den mendrena ere ez dakizularik, zimenduak

ondo izarra ditzakezu, zeure asmo onenekin kargatuta ere.


1) Hasteko, jabetu zaitez zeure pribilegioez; eta ez dezazula hitza gaizki uler, pribilegioak edukitzeak ez baitu esan nahi ez duzunik sekula sufritu, ezta ez zarenik sekula borrokatu zerbait lortzeko edo dena emanda jaso duzula ere, ezpada zein zaren dela-eta, ez duzula gauza batzuei buruz sekula pentsatu behar izan, zeure jatorriagatik (adibidez) ez zaizkizula sekula –pribilegioak– arazotsuak gertatu.

2) Gero, entzun, eta egin etxeko lanak. Adiskidearen ahotsa entzuteko prest egon behar duzu ikasiko baduzu; gaur egun, sareen bidez, zientoka dira aukerak: aditu, irakurri, galdetu eta egin etxeko lanak sus-tatu nahi dituzun gai horien berri xehe eta zehatzagoa izateko.

3) Ondoren, salatu, baina ez dezazula tapatu adiskidearen ahoa. Aliatuaren lana da laguntza ematea, dauzkan pribilegioak erabiltzea beste batzuen kontzientziak iratzartzeko, baina sekula ez adiskidearen ahotsaren gainetik goratuz berea.

4) Jarraian, jakin noiz edo noiz erratuko zarela, eta eskatu barkamena aldiro. Gauzak desikastea prozesu bat da, bizitza osorakoa eta sarritan zaila, labainak dira lurraldeak, eta aise irristatuko zara. Gogoan izan gakoa ez dela zure asmoa, alegia, asmo onez egin duzun irrist, ezpada eragina, alegia irristatzean zerbait hautsi duzula; beraz, kargu hartzen dizutenean, atzera ere, arretaz entzun, hausnar egin, barkamena eskatu, eta aurrera.

5) Eta amaitzeko, guztietan garrantzitsuena, zalantza-izpirik gabe: aliatua zarela esatea baino, aliatua izatea da kontua. Ez da hitz egitea ezpada ekitea, aipatutako lau pauso horiek egunerogunero egitea. ■



Antton Olariaga



Jolastu nahi?



BERTSO EGUNA 2015

URTARRILAREN 31ⁿ DONOSTIAN

12:00 KALEZ KALE Donostiako alde zaharrean.

18:00 EKITALDI NAGUSIA Kursaleko areto nagusian.

21:00 AFARIA ETA FESTA Manteo kiroldegian.

Antolatzaileak



donostiakultura.com



Babesleak



Laguntzaileak



Petritegi

Hedabide laguntzailea



Biniloari eta bildumazaleari omenaldia

Mikel Insausti zaraustarra The Covers, Big Crunch, Lusty Men, Extras eta beste zenbait musika taldetan aritu zen iraganean, eta aspalditik zinema kritikaria ere bada; gaur egun Gara egunkarian dihardu. Ikus-entzunezkoetan trebatua den Marcos Garcia irundarrak, berriz, gazteagoa izanik, ibilbide laburragoa du, baina musika barru-barruan eraman du betidanik, Bloody Mary disko denda baitu familiazat. Bion ekimenez, *Vinyl* filmak argia ikusiko du aurtengo udazkenean, Bloody Mary disko dendaren 25. urteurrenean.

| IKER BARANDIARAN |

Argazkiak: Joxe A. Areta Goñi *Juxe* eta *Vinyl*land

Proiektuaren atzean zaudetenok kontuan hartuta, *Vinyl*land biniloari eta musikari omenaldi egiazkoa dela ez dago zalantzarik...

Marcos Garcia: Bai, horiei eta baita musika eta biniloaren bildumagintzari ere. Aitak disko-denda bat du, eta gurasoek musika kultura handia eman didate. *Vinyl*land-en musikak izugarritzko garrantzia dauka eta aukeratutako kantu bakoitzak eszena bana osatzen du. Gainera, biniloa musika entzuteko euskarri egokiena da; ez da Spotify ezta iPod-a ere.

Mikel Insausti: Ni traidorea naiz biniloen bilduma aspaldi saldu nuelako. Horregatik, film hau damu horren ondorio da.

Nola jaio zen ideia? Eta nola joan da gorpuzten?

M. Garcia: 2013an Mikelek Lekunberriko Viejo Taylor taldearen bideoklipa egitea proposatu zidan. Elkartu ginenean, aspalditik buruan biniloari lotutako proiektu bat zeukala aipatu zidan. Gidoia irakurtzean eszenak irudikatu nituen, eta abuztuan errodatzen hasi ginen.

M. Insausti: Zinema eta rocka batuko zituen proiektua egin nahi nuen aspalditik. Zinemaren teorikoa naiz eta Marcos ezagututakoan —teknika bisuala menderatzen du— erabat osagarriak garela konturatu nintzen. Bloody Mary disko dendak merezi du halako filma bere 25. urteurrenean.

“Bildumagilea musika izugarri maite duen gizakume bitalista dela errebindikatzen du gure filmak”

Mikel Insausti

Fikziozko kontakizuna da, baina dokumentala ere bada. Kontaidazue...

M. Garcia: Filma, musika biziki maite duen bildumagile sutsu bati buruzko istorioa da eta flashback bidez pasarte bitxiak kontatzen ditugu: kontzertuetan, artisten autografoak hartzen... Hori da dokumental atala deritzoguna, benetako gertaerak direlako.

M. Insausti: Musika dokufikzioa da.

Istorioan musika oso barrutik bizi duten hezur-haragizko pertsonekin lan egin duzue.

Beraien bizimoduek beste film baterako emango lukete?

M. Garcia: Protagonista irudikatzerakoan Mikelek Jose Luis izan zuen inspirazio iturri, eta berari eskatu genion aktore lana egiteko. Jose Luisek 25 urte daramatza aitaren disko dendarako joan-etorrian, eta kontzertu guztietara joan ohi

da. Musikarako interes izugarria du, eta izugarri gozatzen du. Filmeko aktore guztiek bete-betean bizi dute musika, %100ean.

M. Insausti: Film erabat amateurra izanik, aktore profesionalekin lan egiteak ez luke zentzua izango.

Beraien burua antzeztu behar izan dute?

M. Garcia: Jakina. Rol zailena Iñigorena zen, eta zur eta lur utzi gaitu. Inprobisatzeko gaitasun handia dauka. Orokorrean, oso lan ederra egin dute guztiek.



M. Insausti: Gidoiaren lehen zirriborroa fikziozkoa zen, baina Cristinak, nire bikotekideak, protagonistak egiazkoa izan behar zuela aholkatu zidan, eta kasu egin nion. Hainbat musika taldek ere parte hartu dute: The Lookers, Red Kross... Aktore lanak egiteaz gain, filmerako hainbat kantu idatzi dituzte.

Zein da *Vinyl*-en helburua, entretenitzea, errebindikatzea?

M. Garcia: Jose Luisen istorioaren bitartez ikusleak biniloen bildumagileen munduan barneratzea eta musikaren munduaz gozatzea nahi dugu.

M. Insausti: Biniloen bildumagintzari buruzko filmografia oso urria da, gutxi eta gaizki landuta dago. Askotan Diogenes gaixotasuna duen pertsona gisa erretratatzeko da. Bildumagilea musika izugarri maite duen gizakume bitalista dela errebindikatzen du gure filmak; jende horrek, etxeko apalak diskoz betetzeaz gain, kontzertuetan artistengana hurbildu eta kantuen sortzaileak ezagutu nahi izaten ditu.

Zenbaitzuek diote diskoen industria desagertzera doala. Zer erantzuten dio horri *Vinyl*-ek?

Marcos Garcia
binilozko disko bat eskuetan,
eta Mikel Insausti.

M. Garcia: Inoiz ez gertatzea nahiko nuke. Eta behingoz jendea ohartzea askoz interesgarriagoa dela disko denda batera joatea disko bat Internetetik jaiste baino. Eta gauza bera film bat zineman ikustearekin. *Vinyl*-en musika grabatzen hasitako euskarri originala erakusten dugu, gaur egun ere dagoen onena.

M. Insausti: Musikariak sutsuki defendatzen ditugu. Sortu, grabatu eta kontzertuak egiteagatik dirua jasotzea merezi dute.

“Musika entzuteko euskarri egokiena da biniloa; ez da Spotify, ezta iPod-a ere”

Marcos Garcia

“Giradiskoak martxan, aurrera egiten duen mundua irudikatzen du. Musika hori ez balego, rockzaleen existentziak ez luke oinarritzko erritmorik ez zentzu harmonikorik izango”

Mikel Insausti

Euskal Herriko eta atzerriko rock talde asko deskubritu ahal izango ditugu film honen bitartez?

M. Garcia: Hainbat talde grabatu ditugu: Ziburuko The Lookers, Bilboko Dr. Maha's Miracle Tonic, Red Kross...

M. Insausti: Balerdi Balerdi, Last Fair Deal... Ezin dugu askorik aurreratu. Filmaren soinu banda 30 bat kantuk osatuko dute eta zenbait musikari eta diskoetxerekin harremanetan gaude.

Film honetan biniloa argudioa, bidea edo helburua da?

M. Insausti: Guztia. Giradiskoak martxan, aurrera egiten duen mundua irudikatzen du. Rockzaleen inguruan musika hori guztia ez balego, exis-



tentziak ez luke oinarritzko erritmorik ezta zentzu harmonikorik izango.

Zein helburu jarri zenituzten hasieran eta zeintzuk bete dituzue dagoeneko?

M. Garcia: Niretzat helburu nagusia Mike-len gidoia iruditan islatu eta film luze bat egitea zen; eta hori beteta dago. Udan grabatutakoarekin oso hunkituta gaude. Hurrengo helburua muntaia on bat egitea da, eta sekuentzia bakoitzean abesti egokiak txertatzea. Abestien aukeraketa oso-oso garrantzitsua da, filmari erritmoa gehitzeko.

M. Insausti: Nik ez nuen inongo helbururik

Filmeko grabaketako irudiak.

Juxe argazkilariak ere lagundu digu.

M. Insausti: Filma errodatu dugu aurrekonturik gabe. Lehen fasea bukatu dugu. Gerora, kopiak editatzeko zein azpitituluak egiteko dirulaguntzaren bat beharko dugu.

Gaztelaniaz egingo duzue? Euskarak izango du lekurik? Eta ingelesak?

M. Garcia: Elkarriketak gaztelaniaz grabatuta daude. Baina euskarazko bertsio bat ere egiteko asmoa daukagu. Hala ere, elkarriketa gutxi daude, musika da filmean nagusitzen dena. ■



zehaztu, eta hain zuzen horregatik, izugarri disfrutatzen ari naiz.

Gidoiaren zirriborro bat aurreraterik?

M. Garcia: Trama, misterio baten gainekoa da: Non dauka Jose Luisek gordeta bere diskoen bilduma erraldoia? Fikzioa eta errealitatea batzen ditugu. Inñigok antzezten duen pertsonaiak misterio hori argitu beharko du.

M. Insausti: Kontakizuna berez Euskal Herriko bildumagile baten kondairan oinarrituta dago, askok galdetzen dutelako zenbat single dituen eta non dauden gordeta.

Non errodatu duzue?

M. Garcia: Irunen, Donostian, Iruñean, Andoainen, Ziburun, Hendaian, Lekunberrin, Oreretan... Baina errodate gehiena Donostian egin dugu.

M. Insausti: Disko dendetan, azoketan eta tabernetan, benetakako lekuetan.

Zein zabalkunde izango du filmak?

M. Garcia: 2015eko udazkenean eman ahal izatea da asmoa.

M. Insausti: In-Edit jaialdian parte hartzea oso interesgarria litzateke.

Nola finantzatu duzue, baduzue dirulaguntzarik?

M. Garcia: Orain arte gure poltsikotik ordaindu dugu guztia. Zazpi t'erdikoiztetxeok eta Miguel osabak materiala utzi digute, eta Joxe Areta Goñi

EUSKAL

**NO
BE
LA**

BELTZAREN

ASTE

BAZTAN

ILBELTZAREN

21 - 22 - 23 - 24 ETA 25

ANTOLATZEN DU



INFORMAZIOA

WWW.ILBELTZA.BLOGSPOT.COM



LAGUNTZEN DUTE.



elizondoko herria

iruritako herria

elizondoko gaztetxea



ttipi-ttapa



berria
argia

Gaua haurrei abestua

2princesesbarbudes talde kataluniarrak plazaratutako *Enciclopèdia baixeta de la nit* diskoaren euskarazko egokitzena da Gaueko entziklopedia koxkorra. Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin kaleratu dute gaua hizpide duen disko-liburua, eta Maialen Lujanbio eta Joseba Tapiaren laguntzarekin.

| ITZIAR UGARTE IRIZAR |

HELENA CASAS ETA MARC MARCÉ dira bi printzesa bizardunak. Pilarik gabeko jostailu tresnez egiten dute musika, familia eta haurrei zuzendutako ikuskizunetan zabaltzeko. Estreinako ikuskizun-diskoa, *Cançons i rimetes*, Kataluniako musika tradizionaleko bertsioez osatu zuten. “Bigarren honetan, gure abestiak sortu nahi genituen, eta ikuskizuna eratzeko abesti guztiak gai baten bueltan jostea

pentsatu genuen; kasu honetan, gaua”, azaldu du Casasek.


Azken urteetan euskara ikasi du Casasek Bartzelonako Hizkuntza Eskola Ofizialean, eta hortik etorri da proiektua euskarara egokitzeko asmoa. Ainhoa Aranburu izan da haren irakasle eta bien artean ekarri dituzte testuak euskarara. Halaber, Aranburuk zuzendu du Casasen ahoskera eta euskararen musikaltasuna. Disko-grabaketa batera egitea “erronka eta jostaketa” izan dela diote, eta haatik, Aranburu egitasmo honetan hirugarren printzesa bizarduna bilakatu dela. Disko-liburuaren formatua Casasek berak ilustratutako albuma da.

Tapia eta Lujanbio

Euskal musikaz interesatu zen Casas, eta horrela ezagutu zituen Maialen Lujanbio eta Joseba Tapia, proiektuan parte hartu duten bi kolaboratzaileak. Hain zuzen, bere ibilbide musikalean Tapiak esangura handia izan duela dio kataluniarrak: “Tapia eta Leturiaren kontzertu batean, panderoa jotzen ikusi nituenean hasi nintzen perkusioa ikasten. Euskal folklorearekin zerikusirik ez duten erritmoak jotzen hasi nintzen panderoarekin, eta aurrerago, Euskal Herrian elkarrekin jo genuen kontzertu batean”. Disko-liburu honetan, Tapiak jostailu-trikitiarekin pasarte bat jo eta ahotsa jarri die zenbait kanturi.

“Maialen Lujanbio, berriz, Ainhoa Aranbururen bitartez ezagutu genuen eta letra bat idatziko ote zигun eskatzera ausartu ginen”, azaldu du Casasek. Honela, bertsolariak diskoko





azken kantuko hitzak landu ditu, *Ondoloin* abestiarenak. Bestalde, Xavi Grima poeta kataluniarrak idatzi du *Gaua marrazki bat* da abestia.

“Musika baxua jende baxuarentzat”

Modu horretan deskribatzen dute printzesa bizardunek egiten duten musika. Musika baxua, “xumea, minimalista eta ozenegia ez delako”. Garrantzitsua ahotsa izan dadila nahi dute, jostailuzko instrumentuak lagungarri gisa erabilia. “Haurrak jaten oinarritzko elikagaiekin hasten direnean bezala da; ez dugu nahi grabaketa ugari eta ordenagailuz egindako baseak dituen musika sortu haurrentzat”, adierazi du Casasek.

Taldea osatu aurretik, bai Casas eta bai Marcé, pop-taldeetan aritu ziren, eta familiarrentzako musika egiten hastean antzeko melodiari eutsi diete, “pop estetika minimalistaz poesia letra burutsuak interpretatuz”.

“Letra irekiak egin nahi ditugu, ez dena esanda dakartenak”, dio Casasek. Hamahiru abestietako hitzekin gauaren inguruan igorri nahi duten mezua ez dela bat eta bakarra diote, zerbait anitza eta norberarendako berea izan daitekeena baizik.



Haurrendako poesia idaztea gai zaila dela dio Casasek, “txepelegiaren eta konplikategiaren” arteko oreka aurkitu behar delako. “Haurrak ez dira inozoak, ez dugu pedagogia egin nahi”.

Gaueko entziklopedia eszenan

Durangoko Azokan estreinatu du 2princeses-barbudes-ek *Gaueko Entziklopedia Koxkorra* ikuskizuna, eta oraingoz, beste eszenaratze bat baino ez dute egin Bartzelonako Euskal Etxean. Hala ere, Herrialde Katalanetan diskoak izan duen harrerarekin gustura azaldu dira: “Jendeak aurreko proiektutik ezagutzen gintuen eta disko-ikuskizuna zabaltzea erraztu egin du horrek”.


Euskal Herrian izango duen erantzunaz zalantza handiagoa du Casasek: “Ez dakit nola joango den, esan didate haurrentzako musika ez dela oso ohikoa, eta beldurra dut kontu serioegitzat hartuko ote den”.

Asmakizunak, teleskopiotik ikusitako irudiak, fanfarre errumaniarra, ametsak, argiak eta beste erabiltzen dute *Gaueko entziklopedia koxkorra* eszenaren gainean jartzeko. Plastikozko tronpeta, gitarra arrosa eta igel-maraken pareko instrumentuez sortzen dute musika, “tropikoko zein ekialdeko erritmoez” aberastua. Hitz gutxitan, familia osoarentzako ikuskizuna, poesia zertzelada eta antzerki-elementu xumeekin jantzia. ■



Literatura

Telefono kaiolatua.
Harkaitz Cano
Alberdania, 1997



Aliziak baino fantasia gehiago

GAUZA SERIOA da, baina parrimurria eskapatzen zait niri: “1994. urtean argitaratu zuen bere lehen liburua: *Kea bebelainopean bezala* izeneko poema-bilduma. Urte hartan bertan argitaratu zuen *Pavlov-en txakurrak* saio hibridoa. 1995ean, *Radiografiak* ipuin-liburua eta *Beluna jazz* nobela argitaratu zituen. *Euskaldunon Egunkarian* ere irakur daitezke bere idazlanak. Gaur egun Zuzenbide ikasketak egiten ari da”. Eta ez 55 urtetik gorakoentzako programa batean: 1975ean jaioa, 22 urtetxo baino ez zituen Harkaitz Canok *Telefono kaiolatua* argitaratu zenean, 1997an, eta bibliografia hori jarri ahal izan zuenean liburu-hegalean. Eta auskalo nork pasatzen zizkion Zuzenbideko apunteak. Ez baita ulertzen bestela.

Esan nahi dut, Rimbaud euskaldunik bada, Cano izan daitekeela hautagai nagusia; bikaintasuna eta loria hogeitaz urteen bueltan lortzen hasi zen gure idazlea. Denek ez zuten berehalakoan ikusi. Edo aitortu zioten bibliografia gorabeheratsua. Garai hartako kritika batek konparatu zituen *Telefono kaiolatua* eta *Beluna jazz* aurrekaria: “Liburua interesgarria bada ere, gustora irakurri badut ere, aitortu behar dut ez duela bete lehengo eleberria irakurtzean sortu zitzaidan ikusmina”. Milurte berriko hamabosgarren honetatik, iruditzen zait pareko zahartu direla biak: lehen irakurketa hartako zirrara berritzen dizutela, alegia, *Aldatz behera itsasoan*, *Koltxoia* edota *Whisky & Nolotil* ipuinek.

Ipuinak eta poemak, baina iruditeria partekatzen dutenak: Heineken –begiak erabat zabalik zituela hil zen bati betazeletan txapak jartzeko–, Gillette –Jimi Hendrixek kopetan alderik alde ebakia egin eta koka xehetua zinta batean jarri ondoren zinta hori buruan lotzeko–, Camel –geltokiko orratz-zainaren alabaren ahoan kokatzeko–. Poetika moduko bat aurkezten dutenak, auskalo Canorena, gutxienez idazle berrientzat: “Urrutira joan zinen, urruntasunean zure idatzietarako ihesaren lasaitasuna aurkituko zenuelakoan. Iragana, hutsean emandako pauso bat zela-eta, ahaztu egin nahi zenuela. Ez zenuen oraindik ikasi etorkizuna iraganera heltzeko lasterbide bat baino ez dela”. Eta ipuin batean aurki daiteke liburuak uzten duen inpresioa: “Aliziak baino fantasia gehiago nuela buruan”. Horiek gutxi balira, bozgorailuetatik Beti Mugan taldearen musika ozena: moztu ilea ispilu atzean etzanda daude zure begiak.

Ezin erabat objektibo izan, beraz, liburu honekin. Diru propioarekin erositako lehenetakoa, memoria literarioan geratuko da portada lila-arrosa, ukigarria, Olariagaren hiru telefono poste harilkatuekin. Eta orduko irakurle hura, bertan betirako kaiolatua. ■

Aritz
Galarra



ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2015

www.bertsozale.eus/araba

1. FINALAURREKOA

URTARRILAK 25, igandea, 17:30ean
DULANTZI, Kultur etxean
Gai-emailea: Marta Ugarte Abasolo

Oihane
Perea
Perez de Mendiola

Ruben
Sanchez
Bakakoa

Iker
Pastor
Rodriguez

Unai
Bengoetxea
Mujika

Ander
Solozabal
Kortabarria

Irati
Andia
Villanueva

Babesle nagusiak:

- Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.alava.net
- Udapa
- LABORAL Kutxa
- Vital gizarte ekintza
- artepan

Udala: Dulantzi Udala

Antolatzailea: bertsozale

argia


3D? Ez, eskerrik asko!

1890 ETA 1920 ARTEAN hainbat froga egin ziren 3D sistema zinematografi-koekin, baina mekanismo konplexua zela eta, ez zuen batere arrakastarik izan. 1922. urtean argazki bidez aplikaturiko lehen 3D filma iritsi zen Los Angeles hirira. Robert F. Elder kamerografoa eta Harry K. Fairall ekoizlearen eskutik. Proiektzio bikoitzeko metodoa erabili zuten, imagina bi koloretan banatuz hain zuzen ere, gorria eta berdea; kolore bakoitzak begi banatan zuen efektua. *The Power of Love* filmak ez zuen batere arrakastarik izan, eta ekuazio honi 1929. urteko Wall Street-en erorialdia gehituz gero, tridimentsionaltasunaren etena ekarri zuen –nahiz eta naziak ere Joseph Goebbels-en eskutik 3D filmak erabiltzen zituzten propaganda gisa–.

1934. urtera arte itxoin behar izan zen. Metro Goldwyn Mayer ezagunak, modu honetan grabaturiko film labur batzuk dezenteko arrakastaz aurkeztu zituen arte, eta European Louis Lumièrek Trenaren iritsiera famatua 3D areto batean aurkeztu zuen arte. Orduan barneratu zen gizartean formatu hau.

Geroztik apenas izan zuen garrantzia eta pixkanaka indarra galtzen joan zen, nahiz eta IMAX sistema eta hainbat esperimentu eta formatu berri sortu zituzten. Baina 2009. urtean James Cameron zuzendariak *Avatar* estreinatu zuen. Filmaren balorazioa alde batera utziz, sistema hau eta ikusleen arteko harreman hori estutzea lortu zuen pelikula horrek. Zinema aretoez gain, etxeko telebista eta 3D moldea eskutik joan zitezen lortu zuen. Hainbat eta hainbat fabrikatzaile, zoroak bezala, beraien produktuetan sistema hau ezartzen hasi ziren. Pixkanaka gure egunerokoan hedatzen hasi zen, baina modu oso okerrean. Txanpon ibiltari gisa imajinatzen zuten eta jendea zinema aretoetara bultzatzeko aitzakia gisa. Korrika eta presaka sekulako film pila pasa zuten 3D formatura, sarreren prezioa nabarmen igota. “Hementxe daukagu negozioa!”, “Aberastu egingo gara!”, pentsatzen zuten. Baina ez zioten gauza oso garrantzitsu bati erreparatu: jendea epe motzean engainatu dezakezula, baina luzera konturatu egingo zirela lardaskeriaz.

Eta halaxe gertatu da. 2015. urtean, azukre koskorra kafean nola, pixkanaka desegiten ari da sistema iruzurti hau. Hiltzen ari da. Hainbat konpainiaren ahotik, min-oihuak besterik ez dira entzuten, sistema horri ez diotela sostengu gehiago emango esanez. Ziur nago, honela jarraituz gero, urte gutxi



barru, guztiz desagertuko dela, edo lehenago pasa zen bezala, bigarren plano batean geratuko dela. Su artifiziala besterik ez direlako, ikusgarriak baina guztiz hutsak barrutik, desastre bat azken finean –bizpahiru filmen salbuespenarekin, *Gravity* eta *Hugo*, esaterako.

Deskalabru honez gain, bada jende askok ezagutzen ez duen bitxikeria bat. Mundu guztiak ez duela 3Dn ikusteko gaitasunik. Zergatik? Era honetan igortzean, bi irudi sortzen dira aldi berean, imajina lentera bidaliz. Honek banatu egiten ditu, begi bakoitzak bana ikus dezan. Momentu horretan, fusio binokularra izeneko prozesua sortzen da burmuinean, irudiak batuz eta sentsazio tridimentsionala sortuz. Fusio binokular hori egiteko, zailtasunak dituzten pertsonak dira hain zuzen, sistema hau ikusteko gaitasunik ez dutenak. Irudiak ez direlako modu egokian garunera iristen.

Amaitzeko eta kontrapuntu positiboago batekin ondorioztatzeko, izango al da noizbait sistema hau baliagarria? Jakina baietz! Gidoia idazterako garaian, elementu zinematografiko moduan hartzen dutenean, hain zuzen ere. Hau da, plano mota, kolorea, aktoreen lana edo musika ezinbestekoak diren bezala, 3Dri garrantzi bera ematen zaionean eta ez ikuskizun soil gisa erabiltzean. Imajina dezagun modu honetan errodatutako film bati, tridimentsionaltasun hori kentzen diogula. Momentu horretan, filma ulertzeko edo istorioa jarraitzeko zailtasunak sortzen badira, justu momentu horretan izango da baliagarria sistema hau eta behin betiko geratuko da gure artean. Orduan esango dugu: 3D? Bai, eskerrik asko! ■

Gaizka Izagirre



Bertso-zopa

Osa ezazu Fredi Paiak, 2014ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketako irabazleak, finalean botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, falta diren hitzak zopan bila ditzakezu.

Gaur ezin dut _____ egin
hau da bihotzeko mina,
buelta ta buelta burua
_____ gordina,
alperrik ehun mila _____
zenbatzeko ahalegina,
_____ dut bertso finala
gero Fiden _____
gaur ere ez _____ lagungarri
Mari Landara sorgina,
ta nire botikinean
soilik _____ aspirina,
_____ amets ederrena
ta gaurko lorik _____
pelikula biek dute
protagonista _____.

Ilusioak _____ du
horrenbeste desengaino,
gure _____ maite dut
noski _____,
baina gaurko gizartean
dana _____ dana laino,
gaur mila aukera daude
bakarra zena _____,
ta _____ normala nahi nuen
ai gizaki _____ ñaño,
baina zure alaba ere
ez duzu _____ joño,
eta gurago dut bizi
behin iritsita _____,
zalantza haundi batekin
_____ min egin baino.



BIZKAIKO BERTSOZALE ELKARTEA

E	A	B	A	E	T	A	N	I	D	R	E	B	S	U	A
H	I	N	F	I	N	I	T	O	R	A	I	N	O	P	S
A	N	N	O	U	L	C	N	C	B	A	S	A	R	B	I
U	E	F	N	V	D	O	Z	E	O	J	Z	C	A	V	G
S	Z	P	I	O	A	Z	R	A	Z	A	N	I	Z	E	A
K	T	L	A	N	C	A	J	I	L	T	E	I	H	S	C
O	U	A	D	D	R	S	V	H	K	A	R	R	N	I	S
R	G	N	R	I	D	P	N	V	S	U	B	O	G	V	U
D	A	I	U	U	D	G	O	I	I	N	L	A	S	E	V
R	Z	T	A	U	A	N	A	R	N	P	P	P	L	S	L
G	E	I	G	R	I	F	U	R	C	I	B	O	U	A	Z
B	G	M	D	A	V	L	F	A	V	Z	R	Z	A	I	T
J	K	I	N	F	B	P	C	J	Z	F	M	E	T	A	R
D	F	O	O	I	I	D	A	U	K	A	T	T	O	M	N
C	H	V	E	R	R	E	A	L	I	T	A	T	E	R	V

Sudokuak

Erraza

7	9			2				4
1				9	4	5		
4	8		6		7	2	9	
		1					8	2
		4		3		9		
9	2					4		
	1	7	5		2		4	9
		9	3	7				8
2				8			5	7

Zaila

			6	3				
	3						1	2
	5	8		1				
		3	9					6
	6		8		3		7	
8					4	9		
				4		3	5	
5	7	1					9	
					5	6		

Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									

Ezker-eskuin:

1. Uholde-ur. Zailtasun handiz. 2. Eri bat bizitze-ko itxaropenik gabekotzat jo. 3. Ardi, hitz-elkarke-tetan. Elizako erlijio-irudi. 4. Ez positibo ez nega-tibo. Amerizioaren sinboloa. 5. Dago. Nafarroako herria (Argazkian). 6. Jauzi. Pilota jokoa, ange-luan bertan jotzen duela. 7. Mahukarik gabeko jaka edo jertse. 8. Haurra. Donostiako mendia.

EUGENIO PEREZ



Goitik behera:

1. Urez hanpatu. 2. Zureak. 3. Luze, goi. Zalantza partikula. 4. Renioaren sinboloa. Akatsa. 5. Nahi bizia, gutizia. 6. Azal gogor. Lutezioaren sinboloa. 7. Arrazoi, zergati. Ez hotz ez bero. 8. Nagitasunez. 9. Nuklearra.

Soluzioak

7	9			2				4
1				9	4	5		
4	8		6		7	2	9	
		1					8	2
		4		3		9		
9	2					4		
	1	7	5		2		4	9
		9	3	7				8
2				8			5	7

Ezker-eskuin: 1. Uhar, Oza.
2. Hilesti, 3. Ar, Ikono.
4. Neuro, Am, 5. Da, Arlegi.
6. Ikoti, Pk, 7. Txaleko.
8. Umea, Ula.
Goitik behera: 1. Uhanditu.
2. Hireak, 3. Altu, Ote, 4. Re,
Taksa, 5. Tirra, 6. Oskol, Lu,
7. Zio, Epele, 8. Nagiki.
9. Atomikoa.

2	1	9	5	6	7	4	8	3
4	6	8	9	2	1	7	5	3
5	3	8	4	7	2	6	9	1
1	5	6	7	9	5	2	8	8
4	7	5	3	2	8	6	9	1
9	8	2	1	5	6	3	7	4
3	9	7	2	1	4	8	5	6
8	7	1	6	9	5	2	3	4
6	4	5	8	3	9	1	2	7

Gaur ezin dut _____ egin/hau da bihotzeko mina/buelta ta buelta burua
/ereduare gordina, alperrik ehun mila _____ bertso finala/gero Fiden _____
Landara sorgina, ta nire botikinean/soilik _____ nire amets ede-
rrena/ta gaurko lorik _____ pelikula biek dute/protagonista berdina/
Ilusioak sortzen du/horrenbeste desengaino, gure _____ maite dut/noski
infinitoaren/baina gaurko gizartean/dana _____ aukera daude/bakarra zena _____
errela ñaño, baina zure alaba ere/ez duzu ezagutzen/joño, era guzago dut
bizi/behin iritsita honaino, /zalantza haundi batekin/berari min egin baino.



Egunero lan berriak sareratzen ditugu
1.300 bideo baino gehiago ikusgai




Erreportajeak

Bost minutuko bideoak. Gai mamitsuak era argian azalduta.



Elkarriketak

Zer esana eta pentsatua ematen duten pertsonekin solasean.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.




Ekitaldiak

Ekitaldi interesgarriak klik batean, baita nazioartean emandakoak ere.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.




Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpitituluekin.



Solasaldiak

Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa.



Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.

‘Hans txikia’, haur psikoanalisiaren hastapenak

BOST URTEKO *Hans txikia* –benetako izena Herbert Graf zuen– izan zen Sigmund Freudek artatutako lehenengo haurra, 1908an. Hansek ez zuen etxetik irten nahi, beldur zen kalean zegoen zaldiak koska egingo ote zion. Gurasoak, Freuden ingurukoak izanik, laguntza eske joan zitzaizkion.

Freudek ordurako idatzia zuen haurren sexualitateari buruzko *Hiru saiakera*. Gurasoei gomendatu zien galdetzeko semeari zertan pentsatzen zuen, zer sentitzen zuen aita eta amari buruz, baita jaio berria zen arreatxoari buruz ere. Hansek egunero hitz egiten zuen aitarekin, eta hark ohar interesgarriak egiten zizkion, gutun bidez, Freudi.

Halaxe, poliki-poliki haurra lasaituz zihoan neurrian, egoera argituz joan zen. Psikoanalista austriarraren ustez, Hansek ama beretzat nahi zuen eta aita urrunarazi. Baina horrek aitaren gaitzespena ekar diezaiokeen, eta beldurra sentiarazten zion, Hansek aita maite baitzuen. Desioaren eta debekuaren arteko borrokaren ondorioa sintoma fobikoa zen: zaldi bibotedunak koska egingo ote zion beldurra. Sintoma horrek onura ekartzen zion Hansi, bestalde: amaren ondoan geratu ahal izatea.

Haurren garapen afektiboaren garrantzia

Haurren garapen afektibo-sexuala eta horrek helduaren baitan duen garrantzia gure kulturaren ondarea da. XX. mendetik aurrera asko ikertu da haurren garapen psikikoaz: jaiotzen direnetik haurrek martxan jartzen dituzte harremanetarako baliabideak, eta inguruarekin eragin-trukea dute. Haurrek, nortasunaren garapenerako,

Harreman afektiboak garatzeko prozesuan, ume askori beldurra sortzen zaio; batzuetan, arrazoi zehatz gabeko beldurra da. Beheko argazkian: Sigmund Freud, *Hans txikia* (Herbert Graf) altzoan duela, 1905 aldera.




LUIS MIGUEL BUGALLO SÁNCHEZ-CC BY SA

beren gorputzaz eta adimen gaitasunez jabetu behar dute, hasierako harreman sinbiotikoak gaindituz.

Gaur egun ere, Hans bezala irudikatutakoaren beldur diren neskato eta mutikoak badira. Batzuetan beldurra zerbaiti diote, bestetan larri durak ez du arrazoi zehatz batekin loturirik. Larritasunak gurpil-zoro batera darama pentsatzeko gaitasuna. Besteekiko harremanak, kontrolatu ezin daitezkeenak, oso arriskuak bihurtzen dira, eta ondorioz interes gabekoak.

Ondoez hori sentitzen duten haurrak motibatuta joaten dira terapia saioetara: amodio eta haserreak, debekatuak nahiz ezinezkoak, jostailu, paper zuri eta arkatzak erabiliz adierazi ahal izango dituzte. Haurrak jolasaren bidez adieraziko du zerk kezkatzen duen. Prozesu terapeutikoaren helburua da marraztutakoari zentzua ematea, ingurukoarekin artikulazioa bilatzea, eta ondoren sinbolizatu ahal izatea. Sinboloak iragana eta oraina biltzen



ditu, eta maitatutako zerbait galtzeko esperientziaren ondoren sortzen da. Haren lekukoa da.

Hansek, izutzen zuenaz hitz egitearekin batera, beldur bat asmatu zuen. Horrek lagundu zion. ■

**Idoia Agirre
psikiatra da.*



Babeslea: **iametza Interaktiboa**

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Zorria, txindurria eta eskinosoa

TXINDURRIAK ez ditut inoiz are-
riotzat izan. Erleak edo gure espe-
ziea bezala taldekoia izateak,
agian, halako begirune bat izatera
bultzatu izan nau. Buelta etorri
den arte. Aurreko batean, mahas-
tiko belarrak txukuntzen, belauni-
ko jarri eta txindurri-muntotik
txindurri-muntora belarrei tiraka
ari nintzela, horra eskularruetatik
gora non igotzen zaidan txindurri
gorri oste bat. Eta belaunburue-
tan gora beste bana. Hozkaz josi
naute ni jabetzerako. Hilabeteak
igaro dira, eta guda zelaia ederki
markatua dut oraindik azalean.

Zorriek eta txindurriek badute
elkarrenganako joera berezi bat,
oraindik erabat ezagutzen ez
duguna. Toki askotan ikertzen ari
dira batzuen eta besteen espezie
desberdinen arteko zerikusia.
Ahizpen arteko hartu-eman dute.
Elkarri mesede egiten diote: landa-
reen puntta berri gurietan, elikadu-
ra gozoena eta errazena duten
kimuetan, zorriak zaindu eta are-
rioengandik babesten dituzte txin-
durriek, gero haiek egingo duten
sabel-hustearen gorozkia gutizia
goren baitute beraiek. Etxerik
onenetan itoginak bezala, ahizpen
arteana bestelaketik ere gertatu ger-
tatzen da: ustez ezin xaloagoa

Eskinosoak
(*Cyanocitta*
cristata)
txindurrien
azido formikoa
baliatzen du
lumen arteko
zorriak
akabatzeke
intsektizida
gisa.



ROB HANSON-CC BY

dena, benetan ezin makurragoa
izan. Eta ez jakin... Gaur jakin
dudanez, txindurriei muturrera
barre egiten dieten zorriak aurkitu
dituzte: txindurri kumeen usaina
imitatu eta zorri kumeak txindurri-
tegiko haurtzaindegira eramaten
dituzte, gero hango kumeen jatena
bertatik bertara lapurtzeko.

Zorria ez da eskinosoa, baina
horiek ere badute elkarren berri.
Iledunon azalean bezala, animalia
lumadunen azalean ere zorriak
ederki bizi izan ohi dira. Txist han,
txist hemen, tarteka odol pixka bat
zurrupatu eta aurrera bolie! Eski-
nosoak ere izaten ditu nonbait, eta
ahizpa gisa datorkiona baina bene-

tan bizkarroi gogaikarria besterik
ez dena nola bazterreratu eta luma-
jea garbitu? Horra han eta hemen,
nonahi, txindurritegia. Mokoak mal-
tzur okertu eta saltoka-saltoka lasai
ederrean txindurritegira hurbildu,
zorabioak joko balu bezala gorpu-
tza bertan etzan, hegoak zabal-
zabal egin, lumatza lainazaz astin-
du eta harrotu eta datorkion
kili-kilialdirako apain-apain gerta-
tzen da. Txindurriak lumadian
sartu, eta azido formikoa askatuko
dute. Eskinosoaren
kilimagarri, baina
zorria akabatuko duen
intsektizida. Txindu-
rien mendekua. ■



Irakurleak galdezka

Kaixo. Patioan limoiondo handi bat daukagu, limoi asko
dauka baina ale txiki samarrak aurten. Udazkenean
kukurrutxek bete zen. Orain hosto azpian puntu zuriak
ditu, argazkian ikusten direnak. Gainean, berriz, hauts
beltz-beltza ageri zaio. Zer egin dezaket? Eskerrik asko.

Ane Balerdi (Alegia)

Kaixo Ane. Arazo larria duzue etxarte horretan.
Argazkian ikusten direnak kukurrutxa helduak eta haren
kumeak dira; zuk aipatzen dituzun puntu zuri horiek,
alegia. Kukurrutxak landareari ahoko eztena sartu eta
izerdia zurrupatzen dio. Hauts beltza ere kukurrutxaren
ondorioa da: intsektu horiek egiten dituzten kaketan
ugaltzen den onddoa. Ez du berak kalte izugarriarik sor-
tzen, hostoari ken diezaiokeen argia izan ezik.



Ni limoiondoaren laguna banintz, eskueran dauden
adarretako hosto eta zortzenak garbituko nituzke xaboi-
urez. Kotoi zati batekin edo gaza gozo batekin busti eta
igurtziz hautsa kendu eta kukurrutxak askatuz bildu.
Askatu nahi ez duen kukurrutxa egoskor alaienik balego,
kotoia alkoholetan busti eta harekin igurtziz saiatu. ■

Bidaia hirukoitza inora ez



John Caryk 1805ean argitaratutako Afrikako Mapa Berria. Gineako golkoaren iparraldean dagoen marra okerra da Kong mendikatea. Marraren jarraipenak Ilargiaren Mendiak adierazten ditu, eta, hala, bi mendikateek kontinentea mendebaldetik ekialdera zeharkatzen dute, mapan behintzat. Mapetatik kanpo ez baitira existitzen, ez bata ez bestea.

MELANESIA, 1774. James Cook kapitain ospetsuak hareazko uharte handi bat marraztu zuen egungo Kaledonia Berriko eremua hartzen zuen mapa batean. Uharteari Sandy (hareatsua, ingelesez) izena jarri zion kapitainak, asmamen biziaren eta orijinaltasunaren erakusle. Irla hura behin eta berriro mapetan azaldu zen 2000. urtera arte. Cookek marraztutako tokian ura besterik ez zegoela egiaztatu zuten arte, alegia. Posible al da esploratzaileak ustez aurkitutako hondar piloa, mendeen poderioz, urpean geratu izana? Ez, gune horretan ozeanoak 1.400 metroko sakonera baitu.

Kontua da sasoi batean frantziarrak existitzen ez den lur zatiaren gaineko eskubideak aldarrikatu zituztela, baita lortu ere. Ordur geroztik, ur eremu huts horrek Ile de Sable du izena.

Baleazale ingeles batek, Dougherty kapitainak, Australiatik gertu irla txiki bat aurkitu zuela jakinarazi zuen 1841ean. Apaltasun osoz, Dougherty uhartea deitu zion. Jatorrizko deskribapenean kapitainak zioen ustezko lur zatitxoak elurrez estalita zegoela, baina 1909ko espedizio bat ez zen irla topatzeko gai

izan. Urte batzuk geroago, Cooken eta Doughertyren herrikide batek, Davis kapitainak, zera idatzi zuen: “Irudipena daukat Dougherty uhartea urtu egin dela”. Irla hura ere ez zen existitzen baina, kasu honetan, balea arrantzaleak ez zuen ikusitakoa asmatu; besterik gabe, iceberg batekin egin zuen topo.

1798an James Rennel kartografoak, Mungo Park esploratzaile eskoziarrak emandako informazioa baliatuta, Afrika erdialdeko mapa batean milaka kilometroko mendikatea marraztu zuen: Kong mendiak. Mendikate eskergak, besteak beste, egungo Nigeria eta Sierra Leona zeharkatuko lituzke alderik alde.

Rennel Londresko Royal Geographical Societyko sortzailea izanik, inork ez zuen zalantzan jarri hark marraztutakoa eta, ehun urtez, bidaiariek itzulunguru luzea egin zuten orografia malkartsua saihestez. Luis-Gustave Binger frantziarrak mendikatea berariaz esploratzea erabaki zuenean, jakina, ez zuen ezertxo ere topatu.

Eta, hala, XIX. mendearen bukaeran Kong mendiak mapetatik kentzen hasi ziren. ■



Arrastoak

Neska perlarik gabe

VINCENT ICKE astronomo eta artista holandarrak Johannes Vermeer margolariaren *Neska perlarekin* (1665) koadro ezaguna ikertu du eta *New Scientist* aldizkarian argitaratu du ikerketaren ezusteko emaitza: koadroko neskaren belarrrian ez dago perlarik. Ickeren arabera, ez da ohikoa perla naturalek tamaina hori izatea eta nakarrak distira zuriagoa, apalagoa izan beharko luke. Hortaz, belarritakoa zilar edo eztainu landuzkoa izango zen seguruenik, edo bernizatutako Veneziako kristalezkoa, bestela.

Margolanaren jatorrizko izenak Ickeren teoria babesten dute. Delfteko artistaren lanen inbentariarik zaharrenean (1676), izenburu honekin ageri da: *Turkiar estiloko erretratua*. Ondoren *Neska turbantearekin* edo *Neskaren burua* ere esan zioten. *Neska Perlarekin* izenburua ez zen lehenengoz 1995 arte azaldu, eta hala jarraituko du aurrerantzean, maisulana erakusgai duen Mauritshuis Errege Galeriarik arduradunek adierazi dutenez, *Neska perla dirudien belarritakoarekin* ez delako batere erakargarria. ■



FRANTZIAKO ESKUALDEAK


Aro politiko berriko mapa egokitzeko arazoak ditu Hexagonoak

Frantziako Legebiltzarreko diputatuak eta senatariak Estatua deszentralizatzeko lanean ari dira. Iaz hainbat lege onartu zituzten eta aurten ere berriak espero dira. Eskualdeen mapa berriak 2016ko urtarrilean osatuta izan behar luke. Eskualdeak berritu ondoren, departamenduaren eredua ere aldatuko omen da. Hona jarraian, 2015era begira egindako kronika.

| MIKEL ASURMENDI |

DESZENTRALIZAZIO LEGEA François Mitterrand presidentearen garaian hasi zen lantzen. Errepublikako lurraldetasunari, erakundeei eta hauen funtzionaltasunari dagokie. Errepublikako eskualdeak (erregioak) 22 dira gaur egun. Eskualdeen mapa hori 1964n egin zen. 2016ko urtarrilaren 1ean, berriz, 13 izanen dira. Hau da, eskualde zabal eta anitz hauek are zabalagoak eta anitzagoak izanen dira ordutik aitzina, Hexagonoko herrialdeen nortasuna are lau-soago geratuko da mapa berrian. Eta horien artean, Euskal Herria. Mapa berria ez da guztiz bukatua, ezta eskualdeetako erakundeen eskumena zehaztuak ere.

Eskualdeen lege berriaren lehen proposamena iazko ekainean egin zen Frantziako Legebiltzarrean. Asanblea Nazionaleko diputatuak mapa berriaren proiektua berretsi zuten. 277k alde egin zuten eta 252k aurka. 33 abstentitu ziren. Iaz, 50 diputatu pasa ziren aurkako-en multzora. François Hollande presidentearen deszentralizazio politikak ataka are eta estuagotik iragan beharko du aurten. Lege berria diputatuak eta senatariak adostu behar dute, baina orain arte ez dira bat etorri. Senatariak 15 eskualde aurreikusi zuten eta diputatuak 13. Eskualdeetako mapa, eta hiriburuak zein izanen diren ez da trenkatu oraindik (ondoko mapan dituzu ikusgai). Uneon, hiriburuaren izendatzea da jokoan. Senatariak eta



diputatuak osatutako batzorde parekideak adostasuna erdietsi izan ezean, diputatuak ebatziko dute maparen egitura.

Ipar Euskal Herriaren geroa

Akitania izan da Ipar Euskal Herriaren eskualdea Hexagonoaren egitura: Gironde (Bordele da hiriburua,

EH Bai mugimendu zabala berrosatzeko xedetan

EZKER ABERTZALEAREN ildo nagusiak batzen dituen siglak dira EHB: iparraldean EH Bai, hegoaldean EH Bildu. Koalizioa izatetik mugimendu zabala izateko jaidura agertu dute azken urteotan ezkerreko alderdi abertzaleek. Izan ere, iraganeko politika bertikala egin beharrean, politika horizontalagoa lantzea eskatzen ari dira herritarrak. Iparraldeko abertzaleek aitzina hartu dute, EH Baik iazko abenduan egin zuen biltzar eratzailan lehen urratsa eman zuen. Biltzarrean, oinarri politikoak finkatzeaz gain, EH Bairen zuzendaritza berria izendatu zuten, baita Ipar Euskal Herriaren ezagupen instituzionalari buruz duten jarrera zehaztu ere.

Egiari zor, biltzarrean hartutako erabakiak ez dira hedabideetara iritsi. EH Bairen ildo nagusiak AB eta Sortu dira. Funtsean, EH Bai (2007an eratua) ezker abertzalearen iraganeko (2002an) zatiketa konpontzeko eratu zen, baita iraganeko zauriak arintzeko ere. ETaren amaierak ezker abertzaleko ildo ezberdinen aldeak murrizten lagundu du, dudarik gabe. EH Baik gatazka politikoaren konponbideaz egin dituen gogotak eta haren jarrerak koalizioa –mugimendu zabala bilakatzeko bidean– batu eta indartu egin du ezker abertzalea. Areago, ezker abertzaleak Iparraldean sinesgarritasuna irabazi du. Horren lekuko da Baionako Agiria. Tokiko alderdi guztiek, ñabardurak ñabardura, hutsunerik hutsune, ezker abertzaleak sustatuta-

ko Gernikako Akordioa edota Aieteko Konferentziari sostengua ekarri diote. Besterik da Ipar Euskal Herriaren bilakaera instituzionalaren aurrean EH Bai osatzen duten alderdiek duten jarrera. Iraganeko Euskal Departamenduaren aldarrikapena, Lurralde Elkargoa bilakatu zen azken urteotan, Batera plataformaren gidaritza zabalaren pean. Alabaina, 2013an, Pierre Andre Durand prefeta berriak Lurralde Elkargoaren ideia burutik kentzeko esan zien aldarrikapenaren bultzatzaileei. Prefetak Ipar Euskal Herriaren egituratze instituzionala Herri Elkargo aukera berriaren bidez gauzatzea proposatu du.

Egiari zor, Frantziako Estatuaren jarrera ez da ustekabekoa izan. Ustekabe handia Sortu alderdiak eman zuen hauxe adierazi zuenean bere azken (iraillean) biltzar nagusiaren ondoren: “Herri Elkargoaren opzioa berezko estatus instituzionala irabazteko baldintzak indartzeko gisan ikusten dugu”. Iraganak iragan, datorren martxoan izanen dira departamenduetarako hauteskundeak. Biarnesak eta euskaldunak batzen dituen departamendurako azken bozak lirateke, aro politiko berri baten boz esanguratsuak, iraganaren eta geroaren boz mugarrak iparraldeko ezker abertzalearen etorkizunerako, baita EH Bai mugimenduaren sendotze bidean ere. Halaber, EH Bairen ibilbide berria eredu lagungarria izan liteke hegoaldeko EH Bilduren bilakabidean.

240.000 biztanlerekin), Pirinio Atlantikoak, Dordoinia, Landak eta Lot-eta-Garona departamenduek osatua. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan 289.000 biztanle dira. Pirinio Atlantikoak departamenduan dago Bearnoarekin batera (Paue da hiriburua, 85.000 biztanlerekin), berezko lurralde ezagutzarik eta izenik gabe. Eskualde berriaren izena Akitania, Limousin eta Poitou-Charentes izan liteke 2016tik aitzina. Bordele izango luke hiriburua. Besteak beste, eskualde horren aurrekontua handiena baita: 1,4 milioi eurokoa. Beste bi eskualdeek, hurrenez hurren, 660 eta 460 milioiko aurrekontua dute. Eskualde berriak 5,8 milioi biztanle izango lituzke. Euskal Herriaren eza gutza eta nortasuna are lausoago izanen dira, beraz. Kontseilu berriak 183 kide bilduko ditu.

Ezkerreko, zentroko eta eskuineko alderdiek beren interesen araberrako borrokan diharduten bitartean, herrialde txikieta espresio politiko gutxituak hauteskundeetan

nola moldatuko diren ikuskizun dago. Euskal alderdi abertzaleen aukerak, adibidez, orain arte mugatuak baziren, aurrerantzean ez dira aiseago zertuko. Ipar Euskal Herria ez da berezko lurralde gisara agertzen ez den bakarra. Bretainiarrek, esaterako, ez dute lortu eskualde bakarrean biltzea. Pays de la Loire eta Bretania eskualdeak bakarra izatea aldarrikatu dute historikoki britainiar nortasunaren aldeko alderdiek. Deszentralizazio lege

Politikari askok harriduraz ikusi du Eskualdeen Mapa gauzatzeko lege berria osatzeko modua. Azken urte honetan hartutako erabakiak fite eztabaidatuak izan dira, doi-doi aztertutak

berriak, II. Mundu Gerraren ondoren bi eskualdetan zatitutako Bretainia batzeko bidea errazten zuela pentsatu izan dute. Legeak lege, Frantzia zentralizatuaren aldeko alderdiak legea beren alde paratzeko trebeagoak eta indartsuagoak direla ageri da berriz ere.

Alsaziarrak, berriz, eskualde bakarrean bilduta bazeuden ere, Lorrena eta Champagne-Ardenne-ekin batuko dituzte. Alsaziarrak kalera atera ziren manifestatzera urte hondarrean. Estrasburgok segituko du hiriburua izaten. Gaitzerdi. Amaitu gabeko mapan izendatua dagoen hiriburu bakarra da.

Korsika da eskualde esanguratsua Frantziako egituraketan. Eskualde berrien legeak ez du orain arte bere izaera aldatuko. Orobat, itsasoz harandiko beste lau eskualdeek (DOM-TOM izendatua) berdin jarraituko dute. Korsikarrek, alabaina, Estatutu bereziko lurralde kolektibitatea (elkargoa) osatzen dute, berezko izaeraren ezagutza.



EH Bai-ko kideek orain arteko koalizioa ezkerreko mugimendu bateratua bilatzeko emandako urratsak azaldu dituzte hil honetan, Baionan.

Departamenduetako bozak

Datorren martxoaren 22an eta 29an egingen dira departamenduetako hauteskundeak. Ondoren, aspaldiko iragarpena betez gero, Frantziako departamenduak desagertuko dira. Urte honetan halaber, abenduan, orain osatzen ari diren eskualdeetan hauteskundeak egingen dira. Politikari askok harriduraz ikusi du Eskualdeen Mapa gauzatzeko lege berria osatzeko modua. Azken urte honetan hartutako erabakiak fite eztabaidatuak izan baitira, doi-doi aztertuak. Batek baino gehiagok horren arrazoiak honela adierazi du: iragan abenduan legea onetsi izanak badu zerikusia aurtengo eskualdeetako hauteskundeak abenduan egin izatearekin. Izan ere, lege bat onartzen denetik hauteskundeak egin ahal izateko urte batek iragan behar du gutxienez. Zenbait sektore politikoren iritziz, lege berri horren gauzapena ez dagokio bere burua goi-mailako demokraziatzat jotzen duen estatu bati. Alegia, ez da eredugarria. Mapa tarrapatuta diseinatu izan dela begi-bistakoa izateaz gain, eskualde berriek izanen dituzten eskumenak ez dira zehaztu orainokotan. Euren funtzioak ere ez dira ageri lege berrian, ezta ondorioz, departamenduen ordezkari izanen omen diren ordezkariak ere. Hots, Senatuan aztertzen ari diren departamenduen eskumenak nola iraganen diren eskualde berrien instituzio berrien funtzioetara, baita nola egokituko diren ere. Frantziako Gobernuak argitu beharko du zein diren deszen-

tralizazioaren helburu nagusiak: deszentralizazioaren xede nagusiaren hirugarren atala deritzana. Departamenduen ordezkari Herri elkargoaren egitura bolo-bolo zabaldu da azken urteotan, baina inork ez daki zertan funtساتzen den. Ez dezagun ahan-tzi ere, deszentralizazioaren politikan metropolietarako Polo ereduak deritzatenak ere aurreikusitakoak direla.

Tokiko politikariak Parisko nagusiek esango dutenaren zain egon ohi dira. Horixe da euren ezaugarrietako bat

Deszentralizazioa

Deszentralizazioa eta egituratzeko berria ulertzeko Ipar Euskal Herriko bi senatarien aburuak ezagutzea besterik ez dago. Jean-Jacques Lasserre senatari zentristaren hitzetan, eskualdeen mapa berriaren legea eztabaidatu denean Ipar Euskal Herria ez da aipatu izan behin ere. Halaber, berak lege kontuak ez dituela menperatzen esan du. Besteak beste, eskumenen zehaztapena, hala herri nola hirien arteko harremanak adostu beharko dira deszentralizazioaren hirugarren atala dela-koaren markoan. Kontraesanak ez dira gutxi: deszentralizazioaren azken atalaren atarian daude, eta hasiera batean daudela diote ere bai.

Tokiko parlamentari sozialistak, Colette Capdevielle eta Sylvie Alaux parlamentariak, eskumenak ezagutzeko zain daude. Frédérique Espagnac senatari sozialistak zer esana izan beharko luke. Alta, tokiko politikariak Parisko nagusiek esango dutenaren zain egon ohi dira. Horixe da euren ezaugarrietako bat.

Baionako Unibertsitateko Zuzenbide irakasle Eneritz Zabaleta Eskualdeen mapa berriaz mintzatu zen urte amaieran. Besteak beste, hauxe erran zuen: “Ipar Euskal Herria gaur egun baino lurralde handiago batean ariko da. Lehen galdua zegoen eta orain are galduago ikusten dut”. Pirinio Atlantikoko Durand prefetak Ipar Euskal Herriari begira proposatutako Herri elkargoaren kariz, berriz: “Legea zehaztuta ikusi gabe, ezin da deus berririk esan”. Beraz, herri elkargoaren proposamenak Batera plataformaren Lurralde elkargoaren proposamenari aitzina hartu dio. Berriki, Baterak prefetaren Herri elkargoaren proposamenari baietza eman dio urrats gisa, Lurralde elkargoaren xedetan, plataformaren etean. Estatuak, hots, botereak berezko mekanismoak ditu herriak sortzen dituen bitartekoei aitziz egiteko. Baterari edo Hautetsien Kontseiluari, konparazione.

Zentralizazioa

Frantziako Estatuak —aldian aldiko gobernuak nahiz Parisko Legebiltzarrak; Senatua eta Asanblea barne— aspaldidanik iragarritako deszentralizazioa nola gauzatu duen inkognita da oraindik ere. Frantziako Estatuaren egitura zentralista astuna, motel eta nekez birmoldatzen ari da. Europako estatu boteretsua izan arren, aro berriei egokitzeko arazoak ditu. V. Errepublikaren eredu zaharkitua dago. François Mitterranden aroaz gero, baita ondorengo ezkerreko gobernuen ondoren —30 urte joan dira harrez gero—, alderdi sozialistaren François Hollande azken presidentek ez du eskuinaren bestelako politikarik gauzatu. Ezker edo eskuina izan, frantziar estatuan jakobinisten logikak nagusia izaten jarraitzen du. ■



Alarrik ez, baina adi

Ez omen dago aztoratzeko arrazoirik, baina arreta galtzerik ere ez. Herri euskaldunenetan ere gaztelania bere bidea egiten ari da. Gipuzkoako Tolosaldeko Asteasu, Alegia, Amezketa eta Berastegi dira horren adibide. Alegiako nondik norakoez aritu zaigu Mikel Alkorta herritar hizkuntzalaria.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

XABIER BENGOTXEAK Tolosaldeko eskualdeko lau herri-arnasgune aztertuak ditu, *Arnasguneak, Ezagugarriak*. Zenbait arnasguneren egoeraren behaketa lanean bilduak. Asteasu, Alegia, Amezketa eta Berastegiko datu demografikoak, soziolinguistikoak eta bestelakoak ikertu ditu eta atera duen ondorioaren arabera, arnasguneak indartsu daude eta ez dago alarma sortzeko arrazoirik. Alabaina, arnasguneetan errepikatu ohi diren joerak ageri dira lau herriotan ere: euskaldun kopuruak, gutxi bada ere, behera egin du; jatorrizko hizkuntza euskara dutenen kopuruak behera egin du; eta etxean euskara hutsez aritzen direnen kopuruak ere behera egin du. Besteak beste, euskaldunak etxean ari dira euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiten, eta kalean euskarari gehiago eusten diote. Bengoetxearen ikerketan lanaren ondorio nagusiak dira horiek. Ondoko orrialdean, *Tolosaldeko Atariak* Mikel Artola alegiarrari egindako elkarrizketa duzue. Filologia ikasketak egindako herritarrak aitortzen du euskararen arnasgune izatearen kontzientzia gutxi dutela herrian, eta halako herri euskaldunenetan erabat euskaraz bizi direla esaten bada ere, ez dela guztiz egia.



DANI BLANCO

Herri bizian ala lotarako herrian bizi, ez du berdin eragiten hiztunengan. Argazkian, Asteasuko etxe saila.

Lurralde antolaketa eragina

Herri txikietan aldaketa txikiek ere eragin handia izan dezakete. Asteasun kolpera etxe saila egiten bada gerta liteke biztanle berri gehienak euskara hiztunak ez izatea, edo gerta liteke etorri berriekin ez euskaraz ez gaztelaniaz egitea, urbanizazio berria ondo hesituta dagoelako eta etorri berriek herriko bizitzan parte hartzeko asmorik ez daukatelako. Hots, lurralde antolamenduak eragina duela hizkuntzen erabileran, nahiz eta ez den

inondik ere faktore bakarra.

Gai horri buruz hausnarketa egiteko hain zuzen, 2014ko urtarrilean antolatu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiak, UEMAk eta Kontseiluak UEUren lankidetzarekin, *Lurraldea eta Hizkuntza I. jardunaldia*. Jarraipena izango du hasitakoak eta otsailaren 5ean eta 6an, Donostian, bigarren jardunaldiak egingo dituzte lurralde antolakuntzan hizkuntza irizpideak txertatzeko erronka eta tresna zehatzei buruz. ■

Babeslea: Hondarribiko Udala



Hondarribiko Udala

Mikel Artola, alegiarra

«Gizartean indarrean dagoen joera orokorra herri txikietara ere zabaldu egiten da»

| AINHOA OIARTZABAL |

Iturria: Tolosaldeko Ataria

MIKEL ARTOLA Alegian jaio zen duela 24 urte, eta egun, bertan bizi da. Euskal filologian lizentziatua, soziolinguistikako masterreko ikasle da orain. Bertsozale Elkarteko kidea ere bada, eta bertan ari da lanean. Hizkuntzarekin eta haren egoerarekin arduratuta, Alegia bezalako herri euskaldunek duten arduraz gogoeta egin beharra dagoela dio.

Alegia Tolosaldeko euskararen arnaguneetako bat da. Hala bizi al duzue zuek?

Beti bizi izan gara euskaraz hemen. Umetatik, ni eta nire adineko jendea euskaraz aritu gara eskolan, eskolaz kanpoko ekintzetan, lagunartean, familian,... baina ez dakit arnagunea izatearen kontzientziarik ote dugun. Nik esango nuke ez dugula asko hausnartu Alegiak euskararentzako duen garrantziari buruz. Natural bizi dugu euskaraz bizitzea.

Belaunaldiz belaunaldi natural transmititu dela euskara...

Zortea izan dugu, euskara gehien erabiltzen denetarikozonaldea da gurea. Natural transmititu da hizkuntza, gazteen artean mantendu egin da, eta alde horretatik ez dugu arazorik izan. Kontua da, ordea, orain, gauzak estutzen hasi direla, dirudienez. Hau da, orain ari gara konturatzen arnagune izatearen kontzientzia hartu behar dugula.

Non, zertan ikusten duzu aldaketa hori?

Nik 24 urte ditut eta zaila da aldaketa handirik ikustea baina Xabier Bengoetxeak duela gutxi egin zuen azterketaren arabera, joera ez da ona.

Bestalde, ikusten duzu herrian zenbait tabernatan zerbitzaria ez dela euskalduna, edo kultura kontsumitzeko garaian erdaraz egiten dela asko. *Tolosaldeko Atariaren* harpidedun gutxi gara, *Berria* ez duzu ikusiko taberna guztietan... Nahiz eta euskaraz bizi jendearen chuneko handi bat, ez da erabat erreala. Bengoetxearen azterketaren arabera, geroz eta erdara gehiago entzuten da, eta etxeetan ere bai.

Zaila da hori neurtzea, baina ikusten duzu nola guraso batzuek elkarren artean erdaraz egiten duten, nahiz eta gero umeari euskaraz egin. Haurrak ere entzuten dituzu elkarrekin erdaraz hizketan, eta seguruenik lehen ere gertatzen zen, baina, beraz, ez da egia denok euskaraz bizi garela. Joera aintzat hartu eta kontzientzia hartzen hasi beharko genuke.



TOLOSALDEKO ATARIA



ALEGIAKO UDALA

Argazkian, alegiarrak herriko jaietan, 2013an.

Zergatik joera hori?

Zaila da jakiten, baina etxeraino sartu zaigu. Lehen herri handiagotan ikusten genituen joerak hemen gertatuko zirenik ez genuen usteko, baina gu ez gara mundutik aparte bizi. Hala, sartuta daukagu gaztelera, gure buruan eta gure barruan. Eta bizimodu mota batek, etxean gelditzeko bizimoduak, bihur ditzake herriak lotarako bakarrik, eta ondorioz, gizartean indarrean dagoen joera orokorra herri txikietara ere zabaldu egiten da.

Izan ere, azken urteetan ez da izugarritzko atzerapausorik eman, baina Jon Sarasuak esaten zuen bezala, kontua ez da botila betea dagoen edo ez, baizik eta botilak zuloa duela, eta erabat betetzen aritu behar da, ez bada hustuko. Beraz, eta joerak ez direnez onak, herri mailan kontzientzia hartu eta estrategia bat egin bat behar da naturalki datorren joera horri aurre egiteko. Epe laburrean diagnostiko on bat egin nahi dugu, helburuak jarri, eta pixkana-pixkana hori lortzeko ekintzak egin.



Metal astunak konpostean



KONPOSTAREN AURKAKO aktibista askoren argumentu izan ohi dira metal astunak. Izan ere, konpostaren analisiak egindakoan metal astunak agertzen dira eta honek, osasun arazoaren gaia pizten du.

Orokorrean metal astuna deitzen zaie, ingurumenean edo osasunean kalteren bat sor dezaketen metalei. Ikusten denez, definizio hau nahiko lausoa da eta gaur egun ez dago akordio borobilik metal astunaren definizio zehatzean. Hala eta guztiz ere, metal astunak inguru eta arlo askotan daude, eta inguru zein arlo horien arabera, metal astun mota ezberdinekin topo egiten dugu.

Konpostaren munduan aztertzen diren metal astun ohikoenak ondokoak dira: kadmioa, kobrea, nikela, beruna, zinka, merkurioa eta kromoa.

Metal astun horiek bi jatorri izan ditzakete: Konpostagailua dagoen lurzoruan bertan egon daitezke edo konpostagailura botatzen ditugun hondakin organikoetan. Izan ere, egunero kontsumitzen ditugun elikagaietan metal astunak egon ohi dira, haragi, arrain eta landareen organismoen zati baitira eta ez soilik haragi-arrain eta sukaldaturiko hondakinetan! Gizakiok ere baditugu metal astunak gure barrunean, proportzio jakin batean ezinbestekoak gure egunerokoa, baina gure organismoan funtzio jakinik ez duten metal astunak ere badira eta kontzentrazio altuan toxikoak izan daitezke. Talde horretan dago adibidez orain arte etxeko termometroetan edo piletan erabili dugun merkurioa.

Konpostako metal astunaren analisia egiterakoan, arestian aipaturiko metal astun bakoitzaren kontzentrazioak neurtzen dira. Metal astunaren kantitatearen arabera, eta beste zenbait parametro kontuan hartuta –germinazio tasa, bakterio patogenoen presentzia...–, konpostak balio batzuk lortuko ditu analisisetan; balio horien arabera, konposta A, B edo C kategorian sailkatuko da. A kategoriakoa adibidez, produkzio ekologikoan erabili ahal den konposta da, teoriarik onenakoa.

Hala ere, estatuaren arabera, A, B edo C kategoria lortzeko balioak ezberdinak dira, adibidez, Espainiako Estatuan A kategoria lortzeko, konpost lehor kilo batek ezin du 0,4 mg merkurio baino gehiago eduki; Grezian aldiz, 5 mg merkuriotara iritsi daiteke. Beraz, konpostaren kalitate analisien legedia oso lausoa da, Europar Batasunean gauza bat esaten da eta Europako estatuaren beste bat, baina agian lege guztiekin ere honela gertatzen da, ezta?

Bitartean jarraitu konpostatzen, eta metal astunez baino, kezkatu ongi aireztatzeaz!

Jon Ander Galarraga Zubeldia

** Egile beraren artikulua hau eta konpostari buruzko besteak www.argia.eus/webguneko/Konpostazank! blogean.*



**GEREZIEN
DENBORA
PASTORALA**

**BAIONAKO LANGILEEN HISTORIA
AZALTZEN DUEN HERRI ANTZERKIA**

BARAKALDO
• OTSAILAK 7 •
EGUN OSORAKO BONOIA:
+ BISITA GIDATUAK
+ BAZKARIA
+ PASTORALA

INFO+
WWW.TOPATOUR.EUS

SARRERA SOILIK:
www.teatrobarakaldo.com

ANTOLATZAILEAK:
topatour euskal kultura protagonista **EZKANDRAI**


BABESLEAK:
EUROPA JAURLANITZA **AQUITAINE** **BAYONNE** **Barakaldo** **Ciudad Miria**
Bilbao **Universidad del País Vasco** **Euskal Herriko Unibertsitatea** **Mikel Laboa Katedra** **eke-icb** **zenbat gara** **elkartea**

Pauso bat gehiago eremu ez-euskaldunean D eredua zabaltzeko

Nafarroako Parlamentuan gehiengoak onartu du euskarazko irakaskuntza eremu ez-euskaldunean, sare publikoan, emateko aukera. Proposamena PSN, Ezkerra eta Geroa Bai-rena izan zen eta Bildu eta Aralar-NaBaik baiezkota eman zuten. Batzordean onartu dute eta azken txanpa falta da: osoko bilkuran baiezkota ematea. Litekeena da hil honen bukaeran onartua izatea. Beste kontu bat da 2015-2016 ikasurtean abian jartzeko denbora emango duen. PSNk UPNren laguntzarekin aldaketa bat sartu du legean,

eta horren arabera, gobernuak erregelamendu bat egin beharko du D ereduko ikasgela abian jartzeko behar den ikasle kopurua zehazteko.

Bestalde, Parlamentuko batzordean ikastolekiko jokaeraz eztabaigatu zuten. Geroa Bai, Bildu eta Aralar-NaBaik ikastolen garraioa eta jantokiak gobernuak ordaintzearen alde agertu ziren, eta aldiz, PSNk eta Ezkerrak ez zuten ontzat eman. PPK eta UPNk ikastolen alde hitz egin dute oraingoan, sare publikoan euskarazko irakaskuntzak biderik egin ez dezan, jakina.



WWW.TEINTERESA.ES

Urquijok lanean segitzen du

ORAINGOAN Amezketan, Beizama, Elgeta, Gaintza, Oiartzun, Oñati eta Usurbilgo Udalak salatu ditu, udaleko aktak euskaraz egiteagatik. Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartzeagatik salatu du berriz, Zeraingo Udala, eta gauza bera gertatu zitzaion Berastegiko Udalari.

Astebete lehenago Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatu zizkion kontuak euskara plana aurkeztu eta biharamunean: Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak iragarri zuen auzitara eramango zuela plana, gaztelania baztertzen zuela argudiatuta.

Maren Belaustegi Uemako lehenakariaren ustez, euskararen ofizialtasuna bera zalantzan jartzen du Urquijoren jokabideak. Espainiako ordezkariak ez du onartzen gaztelaniarik gabeko euskararen jardunik administrazioan. Uemako lehendakariaren iritziz, Urquijok kolpea jotzen duen bakoitzean udala babestea ez da nahikoa, edonolako administrazio babesteko neurri juridikoak aurkitu behar dira.

EKONOMIAREN TALAIAN

Beste hildako ahaztuak

ZINISMO POLITIKO eta mediatiko handiko mundu mailako ikuskizuna izan berri dugu, zeinak hildakok hiltzailearen arabera diskriminatzaren dituen. Batzuk jihadismoak hil ditu Parisen, eta beste batzuk, Mediterraneoan, munduko beste txoko batzuetan eta lantokietan hil dira. Paradisuaren edo bizi baldintza hobeen bila zebiltzan eta kapitalismo basatienaren biktima izan dira. Parisko hildakoengatik munduko agintari politikoak buru dituen manifestazioa, eta besteenegatik isiltasun erabatekoa.

Parisko eraso jihadistak larria eta zorakeria izan dela uste dugu, eta zentzuzkoak ondorengo mobilizazioak. Baina horrek ez du esan nahi beste hildakoez ahaztu behar dugunik. Mediterraneoan, 2014an, 3.000 pertsona hil ziren. 2000. urteaz geroztik, Europara iritsi nahian 22.000 immigrante hil dira eta 1998az geroztik, Mexiko eta AEBetako muga gurutzatu nahian, 6.000. %30 Afrikako Saharaz azpikoak dira, %23 Ekialde Hurbilekoak eta Afrikako Iparraldekoak, eta %25 Afrikako Adarrekoak. Fran-

tziako Estatuan, 2008 eta 2010 artean, 584 pertsonak egin zuten beren buruaz beste langabeziak eraginda. Hego Euskal Herriko ehunka langile ari dira hiltzen amiantoaren erruz.

Parisko manifestazioan adierazpen askatasunaren alde egin zuten agintari askok, hain zuzen askatasunaren aurkako neurriak hartu izan dituzte. Bestalde, agintari horiek beraiek ezarritako politiken ondorioz hil dira Mediterraneoan, Mexiko eta AEBetako muga. Bere buruaz beste egin dute Frantziako Estatuan eta hemen amiantoaren erruz hil dira. Gainera, jihadistak erasoari askatasuna murriztuta egin nahi diote aurre! “Ni Charlie naiz”, bai baina, ni afrikarra, mexikarra, eritrearra eta siriarra ere banaiz, eta langabeziak eta amiantoak hil nau. Zein gobernu, hedabide eta herritar gogoratzen da hildako horiez? Hildako guztiek gureak beharko lukete, baita jihadistek ere. Denok gara arduradun.

Juan Mari Arregi



tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com

Eta Gerra Handiak Charlie Hebdo ere harrapatu zuen

Tamalez ez da egia suertatuko Luz marrazkilariaren desioa, sarraskiaren hurrengo asteko *Charlie Hebdo*ren azalean margotua: “Barkatuta dago dena” dio Mahomak eskuetan daukalarik “*Je suis Charlie*” eslogana. Potentzia handiek munduaren mapa geopolitiko berrantolatze hasitako borrokak laster atal odoltsu berriak ekarriko ditu.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

BERNARD ‘WILLEM’ HOLTROP 73 urteko marrazkilari beteranoa, *Charlie Hebdo* astekari satirikoaren sortzaileetako, garratz mintzatu zen Parisen antolatzen ari ziren protesta ekintzen erdian: goragalea ematen ziotela masakrea jasan ondotik atera zitzaizkien lagun berri askok, betidanik etsai izandakoek. Bukaeran onartu zituen, hala ere: “Adierazpen askatasunaren alde manifestatzen baldin badira, ongi etorriak bitez, jakina”.

Baina Parisa urtarrilaren 11n hurbildutako munduko buruzagi nagusiak ez ziren adierazpen askatasunaren alde oihukatzeraz bildu. Astekari lotsagabearen arduradun eta langileak sarraskitu ostean, jihadista talde berak juduen ohiturazko elikagaiak saltzen dituen komertzio bat bahitu zuen eta erlijio horretako lau bezero hil. Harrez geroztik marrazkiak ziren gutxienez.

Parisek sekula ezagutu duen manifestazio jendetsuenaren aitzindari paseatu ziren manatzen duten herrialdeetan kazetariak zentsuratu, zigortu, preso hartu edo are hil arazitakoak ere, kolore politiko ezberdinetakoak. Alferrik da izen bakar bat aipatzea besteak ahanztekotan, *Occupy Wall Street* bezala beste askok zehaztu dituzte François Hollandek besotik oratuta eraman zituenetako askok prentsa eta adie-

razpen askatasunen defentsan eginitako meritu ilunak.

Noam Chomskyk zuhurtasunez idatzi du: “*We are all... fill in the blank*” (Denok gara... bete hutsunea). Alderatu ditu *Charlie Hebdo*ren aurkako eraso eta 1999ko apirilaren 24an NATOk Belgradon Serbiako telebista bonbardatuz eginitakoa.

Irrati eta telebista serbiarrak mutu arazi zituen misil haren eztandaz 16 pertsona hil ziren. NATOk eraso justifikatu zuen beharrezkoa omen zelako Milosevic hondoratze-ko. Kennet Bacon bozeramaileak esan zuen: “Serbiako telebista Milosevicen makinaria hiltzailearen parte da, armada den bezala”. Hura erasotzea legezkoa zen, beraz.

Gauza bertsua pentsatu bide zuten Yemengo Al Kaedako buruek edo haien laguntzarekin Parisko bi sarraskiak prestatu zituzten jihadist frantsesek, bi eguneko tartean beren ustez estrategikoak diren harrapakin bi kolpatuz: komunitate judua eta musulmanentzako sakratuak diren irudiei iseka egiteagatik haiek kondenatutako aldizkaria.

Gerraren logika gordintasun osoan azaldu du Amedi Coulibalyk, Hyper Casherren lau bezero hil eta gotortu zen ekintzaileak, grabaturik utzi zuen bideoan: “Biktimarena egiten duzue gertatzen dena ulertuko ez bazenute bezala, bitartean

Daily Record webgunetik eskuratutako argazki handian, polizia frantsesaren indar bereziek Parisko Hyper Casher komertzioaren atea leherrarazten duten unea, urtarrilaren 9 arratsaldean. Aurrez lau bezero hil zituen Amedi Coulibalyk tiroka egingo zien aurre barrutik. Irudi txikian talde jihadist berak egun batzuk lehenago erasotako *Charlie Hebdo* astekariak ondoren atera zuen zenbaki bereziaren azala. Mahoma profetak dio, eskuetan “*Je Suis Charlie*” leloa daraman papera daukala: “Dena barkatuta dago”. Klase askotako erreakzio nahasiak eragin zituen Europa osoan atentatu bikoitzak, adierazpen eta kritika askatasunaren aldarrikapenetik hasi eta musulmanen kontrako eraso xenofoboetaraino. Urtarrilaren 11n Parisen manifestatu ziren munduko hainbat agentari. Tartean, *Euskaldunon Egunkaria*, *Egin*, *Egin Irratia* eta *Ardi Beltza* itxi zituen gobernu espainiarraren ordezkariak.

zuen koalizioak, zeuek buru zoazte- la, etengabe bonbardatzen duelarik, gudariak eta zibilak hilaz... Zuek erabaki behar ote duzue munduan zer gertatu behar duen?”. *Charlie Hebdo*ko artista eta langileek eta erosketetan ari ziren lau oinezko juduk larrutik ordaindu dute.

Saudi Arabia eta Qatar

Parisen lehenago ikusia da antzeko- rik. 1980ko hamarkadan militarrek patruilatzen aritu ziren tren geltokie- tan, lehergailuen beldurrez kontsig- nak itxita, kontrol zorrotzak bazte- rretan. Orduan ere Ekialde Hurbileko ekaitzek tximistak bidal- tzen zituzten tarteka Europara. Lan- nemezango espetxean dago oraindik preso atentatu haietako batzuen egi- lea, George Ibrahim Abdallah, zigor osoa kunplitu arren kaleratzen ez dutena, amerikarren presioz.

Testuingurua erabat aldatu da harrez geroztik. Gerra Hotzaren azken ostikaden aro hartan oso bes- telakoak ziren erreferentziak eta indar harremanak, eskuina, ezkerra, sobietarrak, NATO, Israel, palesti- nar ezkertiarak.... Afganistanen gero dena hasi zen aldatzen, batik bat herrialde musulmanetan. 2001eko irailaren 11ko erasoan ondotik, Pakistandik hasi eta Nige- ria arteko eremu zabalen berran- tolaketa geopolitiko hasi zen.



New Yorkeko dorre bikien era-soarekin zerikusirik ez zuen Iraken inbasioaren ondoren, 13 urteotan hankaz gora jarri da Ekialde Hurbil eta Afrikako Ipar osoa. Paradoxikoki, Europaren eta AEBen segurtasuna hobetzeko omen ziren inbasio, estatu kolpe eta gerra guztiak gora behera, segurtasunik eza handitu baizik ez da egin Europan.

Orain arteko azken errematea izan da Siriako estatuaren lehertzea. Parisko gertakizunen biharamunean Ekialde Hurbila inork gutxik bezain ondo ezagutzen duen Tomas Alcoverro kazetariak titulatu zuen: “*La amenaza yihadista: La guerra siria en el trasfondo*”. Siriako zerbitzu sekretuekiko elkarlana hil ala bizikoa omen da frantsesentzako, hauen lur ere-

muan dabilzan jihadistak kontrolatzeko. Baxir Al Asaden beharra dutela, alegia.

“Siriako gerrarekin –mende honetako gerra nagusia– ireki da Pandoraren kutxa beldurgarria, mundu mailako eskalada terrorista ekarriko du eta agian egunen batean baita mertzenario hauen mendekua ere beren jaun feudalen kontra, hau da Qatar eta Saudi Arabiako errege kriminalen aurka. Orain artean, eskueran dauzkaten dirutza izugarri, diruz erositako diplomaziari eta etengabeko eroskeriei esker, lortu dute saihestea elikatu dituzten piztien haserrea. Bereziki Qatarrek kristalezkoa dauka teilatua”.

Alcoverro ez da lehena izan Qatarren inplikazioak salatzen,

non eta Bartzelonako *La Vanguardian*, Kataluniako banderaren koloreak Qatarren publizitatearekin uztartzen dituen Barçaren erresuman.

Egunkari berean, Afrika Erdiko Errepublikan apezpiku den Juan Jose Aguirre andaluziarrak iaz publikoki deklaratu zuen tripako mina ematen ziola Qatarren publizitatea ikusteak futbolarien tixertetan. Hala ere, Qatar eta Saudi Arabia ondo homologatuta daude terrorismo jihadistak hainbeste kezkatzen duen Mendebaldean, are gehiago, esan liteke hein handi batean Ekialde Hurbileko mapa berria haien nahieran ari dela osatzen.

Urtarrilaren 13an Frantziako parlamentuan hautetsiek zutik *La Marseillaise* ereserkia abestu zuten, 1918tik lehenbizikoz. Gerra handi baten aurreko giroa arnas zitekeen egun horietan Parisen eta Frantziako estatuan, denok bat eta tinko urrutiko arerioaren kontra.

Baina gerra hau ezberdina da. Petrolioaren merkatzea ere arma da, blokeo ekonomikoak bezala, edo eraso zibernetikoak. Aliantzak oso aldakorrek dira, interesak nahasiak, interes eta konkurrentzia sareak nahaspilatuak.

Interes handia dago, aginte gune askotan, baita elkarren etsai direnek ere, agendaren erdian jartzeko zibilizazioen arteko talka, bazterturik krisi ekonomikoaren irteera neoliberalari buruzko eztabaida. Egunotan zertaz entzun duzu jendea hizketan ostatuetan, murrizketa sozialez ala musulman etorkinez? ■







**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona



DANI BLANCO

Mugitu!

BAKE PROZESUA: PPren boikotaren adibide gehiago ez da behar, zerrenda luzea da eta mendekuan eta irabazlearen erabateko naguskerian oinarritua jarraitzen du. Gaurkoz, hortik ezin da ezer espero, Espainian Gobernu aldaketa baino. Hari begirako erantzun publikoa gizarte mobilizazioa eta salaketa besterik ezin da izan. Urkullu lehendakariak ere behin baino gehiagotan esana du hori, baina ez da iragan Madrilgo jarrera horri tinkotasunez aurre egitera. Ez bera eta ez EAJ, abokatuen aurkako sarekadari emandako erantzun eza —epela ere ez— horren azken adierazgarrietakoa, baina askoz gehiago ere badira. Presoen aurrean edo “ezker abertzaleko fatxen” aurrean duen tinkotasunarekin kontraste handia egiten du jarrera honek.

Desadostasunak desadostasun, euskal alderdi nagusien esparruan EAJk, EH Bilduk eta Geroa Baik adierazten dute argi bake prozesua eta elkarriketa bultzatu behar direla. Eta ari dira. Baina badira oztupoak: EAJrentzat ez dirudi samurra eguneroko bere politika PSErekin egindako itunean sostengatzea eta bake prozesuan EH Bildurekin aurrera egitea.

Gakoetakoa da ea nola erakarri daitekeen PSE eta Podemosen inguruan egitura daitekeen gizarte esparrua bake prozesura, ea posible ote den hori egunerokoan bakoitzak bere politikak defendatuz edo ez. Izan beharko luke.

HIRU URTE iragan dira ETak jarduera armatua utzi zuenetik, bere esparru zibilak bultzatuta eta bere jarduerak etorkizunik ez zuela ohartuta. Baina, logikoa den moduan, bere iraganari muzin

egin barik. Nagusiki bere alde bakarreko erabakian oinarritu da orain arteko bidea. Baina ez da nahiko eta, beraz, noiz arte jarraitu behar du ETak urrats gehiago eman gabe? Horretarako ez ditu tresna handi asko: armagabetzea, bere etorkizuneko izaera definitzea (disoluzioa tresna gisa erabiltzeko edo IRAk bezala egitea, desagertzea desagertu gabe) eta iraganarekiko irakurketa.

Urrats gehiago ematera behartuta daude ezker abertzalea eta ETA, beren esparru zibilaren gehiengoa haiek baino urrutiago dago bai iraganaren kritikan, bai eman daitezkeen urratsei dagokienez. Esparru horri, funtsean, presoak eta iheslariak duintasunez etxeratzea inporta zaio; amaiera ordenatua izan dadila, ez galtzaile eta irabazleen logikan oinarritua. ETA desagertzea edo ez eta armak nola entregatzen diren ez dira erabakigarriak perzeptzio horretan.

Baina ez da nahiko eta, beraz, noiz arte jarraitu behar du ETak urrats gehiago eman gabe?


Presoena agendaren lehen lerroan dago orain, baina oraingoz blokeatua. Kontua da zer eskatzen zaien presoek: EPPK haustea eskatzea ez da ez zilegi ez eraginkorra, presoek hala antolatu nahi badute; zilegi ez den moduan, EPPKtik kanpoko biderik jarraitu nahi duten presoek presio egitea. Helduak dira guztiak eta bide hori beraiei bakarrik egiten utzi behar zaie, gatibu izateak erabakietan dakartzan presoari kanpoko oztupoak gehitu barik.

ETAren gatibu direla esatea eta harengandik askatu behar dutela esatea manipulazioa da. Espainiako preso dira eta bakoitzarekiko onuren onarpena Madrilgo Gobernuaren esku dago, presoek onurak eskatzen badituzte behintzat. Eta ari dira. Galdera nagusia honakoa da: zer eskatzen zaio presoari legeak dituen onurak probestu ahal izan ditzan? Legean aipatzen da ETatik aldentzearena, borroka armatua alboratzea, kalte ordainak, barkamen eskaera, segurtasun indarreko kolaborazioa... baina Gobernuak eta epaileek ez dizkiete horiek guztiak eskatu Zigor Kodeko 100.2 artikulua izenean hirugarren gradua eman edo askatasuna jasotako guztiei, eta asko dira (Galindo, Vera, GALEko gainerako guardia zibilak, ETako preso gaixoak...). Legea baino borondatea da.

Eusko Jaurlaritza tematua dago iraganarekiko irakurketa kritikoan, baina zehaztu beharko lieke presoek bere eskaera zehatza zein den, eragindako mina injustua izan dela aitortzearena nola zehazten den. Hori baldin bada onartzea iraganen erratuta egon direla esatea, beren bideak ez duela zentzurik izan onartzea eta haien ibilbide politiko eta militanteari uko egitea, oraingoz jai dago. Hori argi utzi du EPPK-k bere azken agirian. Bakea eta bizikidetzat ezin dira lege dekretuz eraiki, eta iraganarekiko kritika unean uneko hausnarketa eta ikusmoldeek finkatzen dute. Iragana ezin da berdin ikusi 2011ko azaroan kokatuta, 2015eko urtarrilean edo 2020an. Prozesu bat da eta atzerako begiradak ere horren arabera garatuko dira. ■



ASTE HONETAKO Zozketa



Argiako harpidedunentzat



Lar Zaldiak

Bi lagunentzako saio bat

LARTZANDIETA Baserria,
Urdaia auzoa, 44
Usurbil GIPUZKOA

www.larzaldiak.com

1



Donostiako Aquariuma

4 lagunentzako
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2

Ekain berri



Ekainberri

3 lagunentzako
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

3



Nevermind Tree Sustrai barik

5 CD opari

www.hotsak.com

4



Erlea gure sendagile

liburua

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2444. Argia)

ATXASPI

• Andoni Alba Salaberria (Iruñea)

SAN TELMO

• Joseba Landaluze Moraza (Gasteiz)
• Iñaki Urutxurtu Fernandez (Antsoain)
• Jose Aierbe Mendizabal (Beasain)

EKAINBERRI

• Xabier Arrizabalaga Larrinaga (Ondarroa)
• Gaintzako Udal Liburutegia (Gaintza)
• Aitziber Dorronsoro Aizpurua (Deba)

BROKEN

• Jose Felix Zamakona Aranguren (Markina-Xemein)
• Arturo Kanpion Kultur Elkarte (Iruñea)
• Mayi Iza Agirre (Hondarribia)
• Juan Jabier Iturralde Maisterra (Iruñea)
• Arantxa Aizpurua Arruti (Zarautz)

OKATXU

• Santurtziko Udal Euskaltegia (Santurtzi)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com